

I. — PRESONDEGIAK

ZUZENBIDE BERRIA, GILTZAPETU ZAARRAK (*)

Joandaneko egun oietan egunkari batzuek Caraban-txel'eko giltzapetuentzat agertu duten arretak erritar guztien esker-ona merezi du, bañan, (beren eginkizunari edo norberari dagokielako) zuzenbidearen izenean (sarritan arlo ontan ez ain zuzena) azketasuna kendu zaien personak bereziki kezkatzen gaituztenen aldetik batez ere, gogarte bat egitera ere bai. Izparringi batzuetan agertu diran berriak erriaren aurrean burutapen bat egiteko eskatzen du askotarizko arrazoiagatik (baita zientziatzko, legedizko eta gizakioiazkoak ere). baitegi barruetan gertatzen dana jakiten saiatzen geranok badezakegu eta agirian jartzea beartuak gaude:

1. Españiko Estaduko baitegiak sustraitik eraberri-tu bearrean daude, gaur-egun giza-eskubiderik gutxiene-koak ere austen dituztelako.

2. Azketasuna kentzen duten zigorrak nolatan era-biltzen diradenen berririk ez dauka gizarteak. Zori-tzarrez, gizarteak ez du informazio ori eskatzen, eta gutxiago oraindik protestarik egiten.

3. Komunika-bideak, salbuespen batzuk izan ezik, ez dute arreta aundirik ipintzen, naiz eta ainbeste milla-ka persona, eta batzuetan urte askotan, oinarrizko es-kubiderik gabe ere egon arren.

(*) Isparringizko argibide au "El Pais'era" 1979'ko Mar-txoan bialdu nuan, eta egunkari ortan Apirillaren 8'an ar-gitaratu.

4. Elkartezko eraikundeak, politikazko alderdiak, sindikatoak, eliz eta karitas'eko eraikundeak... beren bearkizunak, giltzapean baztertuta dauden erritar oieri dagokionez (etxeko aberek baño egoera okerragoan) aaztu egiten dituzte. Giltzapetuak alegintzen dira gu-ri aiazten, askotan beste protesta askoren baño egoera negargarriagoagatik. Ortarako artzen dituzten bideak ez dira ain zakar, gogaikarri eta erriko pakearen ondatzalle (norberari egindako zauriak, gose huelgak ez dute gure eguneroko bizitza erosoia ondatzen) eta erri-diru gutxiago kostazten dira gañera.

6. Gerekoikeriz (etorkizunari begiratzen ba-diogu) presondegi asko itxi bear genituzke, eta oien ordeztaketasunean nortasuna sendotuko duten zigorrak ipiñi. Zigor oiek gure gizarteko bidegabekerizko eraikundeak eta krimen sortzailleak diranak kentzeko izan bear dute.

Giltzapean daudenak, beren familiak eta COPEL'ek idatzi dituzten oarrak (COPEL Comisión organizadora de Presos Españoles en Lucha; eta dagonekotik agertu nai diet neretzat aundigarri izango litzakela beren artekotzat eta lankidetzat artuko ba'ninduteke) orain eman nezaioken baño argitasun sakonagoa merezi dute. Bañan zuzenbidearen maitale dan edonork beren eska-bideak izenpetzen dituala konbeni da beintzat agirian jartzea. Agian, eskabide oien joera zerbait zuzendu be-rra izango da. Zeazki esan da, dirudienez giltzapetuak nozitzen dituzten utsune eta zuzengabekeriak Hazien-dako Ministeritzak Zuzenbideko Ministeritzari ematen dion diru eskasiagatik da, bai baitegientzat eta baita ere baituak daudenen ardura daukatenentzat (obetogo esateko, ardura euki nai bai, bañan ezin). Beren ezi-kearako eta bearretarako ematen zaien diruagatik per-sona oiek egiten dutena, dezaketena baño geiago da.

Azpmarratzekoak dira giltzapetu oien eskabide batzuek. Adibidez: baitegietako araudiak sustraitik eraberritu ditezela. (Gaur-egunerako araudi ori saarkitua gelditu da; Nazio Batuetako batzarretan —azkenekoa 1975'ko Irailan izan zan— delituari aurrea artu eta gaizkillea bear bezela tratatzeko egin ziran arau txi-kienik ere ez da betetzen; ezta ere ez dira betetzen Europako Kontseilluak 1973'an zeatz esan zituan arau-rik gutxienengorik ere). Eraberritze au, giltzapetuak aditzera ematen duten bezela, gai auetan ikasiak dire-

nak eta giltzapetuak berak parte artuaz burutu bear litzake. (Nik dakidanez lankidegotza oren aurrera eramateko asmorik ez dago).

Giltzapetuak ez ditezela dauden espetxetik aldatuak izan administrakuntzako agintarien alde bakarretik artutako eta epai-legezko kontrolik gabe gogoak emandako erabakiz. (Tokiz aldatze ori erbeste-zigorraren antzera artua izan diteke, bañan aurrez epairik gabe ezartzen dira). Giltzapetuak beren lurraldean egon bear dute, danoren onagatik, beren etxekeon eta adixkideen ingurua bear dutelako (naiz ziurtasuna, eta esi barruko ordena zerbait gutxitxen bada ere).

Tratu txarrak emateari ustea, eta zuzenbidearen Administrakuntzaren aldetik gizaeskubideeri zor zaion erabateko errespetoa.

Baitegian egiten duten lanari dagokion sari bidezkoa eman, azketasunean lan egiten duten legediaren arabera.

Jatena osasuntsuna eta mamitsua, eta kanpotik jatekoak artzeko eskubidea, politikagatik barrenean daudenak bezela.

Baitegiatako liburutegietara egitako sarbidea, oraingo debekua kenduaz.

Zigor-gelak ezereztatu, eta abar.

Giltzapetuen eskabide auek (eta beste geiago ere bai) beste errietako baitegi askotan emanak daude iadanik, eta ondorio onakin gañera. Bañan ondorioak onak ez badira ere, eskubide oiek bidezkoak direlako eman egin bear lirake.

Azketasun gabeko auen gurariak txikiegiak eta motxegieak gertazen dira. Kriminologie deritzaion bere liburu ederraren irugarren argitaldian, 136'go eta urrenorrietan Kaiser'ek aipatzen digun bezela, zigor-legeen edukia, kopurua eta esan naia, azkeneko urte auetan zero aldatu da.

Ala ere, Espaiñiko Estaduan, baitegi oiek, gutxi gora bera, orain dela mende bat bezelatsu daude. Eskabide oiek danak emango balirake ere (eta berealako batean eman bear lirake), oraindik giltzapetuen garrantzi aundiko eskubideak ezagutu eta garatu gabe geldituko lirake. Adi bidez, bere izkuntzan itz egiteko eskubidea; bere izkuntzan idatzitako idatziak irakurtzeko eskubidea (il osotan eundaka kilometrotara dauden personen iritziaren zai egon gabe); beren famili eta adixkideekin

artu-eman geiago izateko eskubidea; ezkon ikustaldiak izateko eskubidea; erlijio laguntza egoki baten eskubidea (Estaduko funtzionari, edo bertako gobernatzalle batzordeko ez dira erlijio-gizonak emana); gure noiz-baiteko Zigor-Legediko eta kendu bearreko artikuloetan oiñarrituta zigortuak izan ziranentzat amnistiaren eskubidea (Zigor-Legedia oizko delitutzat artzen diranak diskriminatzeari sendoki menderatu bear zaio, eta krimentzat artu oizko delituak ez diranak eta gaur oraindik ia tipifikatu gabekak, esate baterako diru-igesia, lurrarekin egiten diran trapukeriak, polizi-oiñazeketak, eta abar); beren liburutegietan liburu eta aldizkari geiago eukitzeko eskubidea; presondegitik irtetzean eta denaren bearrean arkitzean, eta markarik lotsagarriena-kin bezturik daudenean arretaz erainkunderen batean artuak izateko eskubidea; Arrazoiarekin dio Blau'k (Strafvollzug in der Praxis, GruyteR, 1976 32'garren orrian eta urrengoetan) erriak ez dietela giltzapean egon dagokei begi onez begirutzen eta ez dakitela zen-ñen bearrezko eta onurakorra dan baitegietako legeak eta oiturak (praxis) sustraitik asi eta obeagotzea.

Kriminologo kritikariak erakusten dutenez baztertu asko, baztertzalleak beren legetasunean babestuta egiten dituzten izugarrikeri kaltegarrienen biktima direla. Ziñezkoak izan gaiten: Agintaritzza, funtzionari oiekin (bear ainbateko ikasketarik gabe, beren eginbearra betetzeko bear danik gabe, astirik gabe) bir-ezitzeko gauz ez dirala, eta presondegia krimenaren unibersidade biurtzen duten egiturakin, ezer gutxi egin litekela garbi esatea beartua dago.

Agintaritzza justizia egitea beartua dago, baiñan baita justizia egiten duala agertzea ere. Azkeneko eginbear onek, izparringietan datozten kejak oiñarririk ba ote duten jakiteko, gauzak erriaren aurrean garbi jartze eskatzen du. Gutxieneko eskubide oiek autsi gabe nola jardungo dan agertu bear da. Orrelakoetan ixilik gelditzea, delitu ertsakor bat, almenaren delitu bat, ez oizko delitu bat, oso delitu astuna (ez da, agian, tipifikatua egongo, ez da zigortua izango, baiñan delitu bat da). Lokatz auetatik auts okerragoak, etorriko dira. Denori min ematen digun indarkeria, ain aundi baten, agintariagoaren onelako edo bestelako ixiltzeetan sortzen da (politikazkoa, edo ekonomiazkoa dela).

Itz gutxitan, almengoaren jabe dan bat-edonbatek zuzengabekeri aundiak egiten ari da giltzapetuakin. Eta gizartea ixiltasun errudunean dago; eta au, beren eskubideen alde egiteko gauz ez diran millaka personentzat kalte oso larria da, bizirik, esku, oñak eta aoa lotuta lurperatuak daudelako (beren leenera biurtzeko).

ESPAÑIAR PRESONDEGI ARRUNT ETA GUDARIENAK ETA BEREN ORDEZKOAK (*)

SARRERA

Parisko Centre Français de Droit Comparé eta Section de science criminelle de l'Institut de Droit Comparé'k, eskatuta oar au Españiko baitegi arrunt eta gudarizkoen eraikundeaz idatzi da, aurre agiri izan zedin Frantziko Zuzenbide Ministeritzakin elkartuta ikaslan berdinkatu bat egiteko. Asi masiko informazio bat eskeini nai du baitegi arrunt eta gudarikoen legediaz, baita gaurko praxis eta teoriiaz ere, bañan bertan ematen dan trataoa eta bertako arduradunak azpimarratuaz. Gero azketasuna kentzen duten zigorrak aipatzen dira orain-oraintxe gertatzen diraden estadistikako datoakin, eta orainari eta geroari begiratzuz argitapen labur bat.

Beste txetasun eta zeñezkoak, azkenean, Bibliografian aipatzen diran argitalpenetan aurki ditezke.

Orri auek balio lezakete beste nazioetako baitegien egoerakin berdintzazko lanerako. Orrezaz gaiñera, irakurlearentzat, gaurko egunetako politika-aldaketan Españiko estaduko eta bere Gudaloztearen sail aundi baten joera ezagutzeko zantzu bat izan zedin. Baita ere, persona eta eraikunde batzueri denon esku eta biotzen

(*) Gai au atontzen asi nintzanean nere kide Sergio GARCÍA RAMÍREZ'engandik eskutitz bat artu nuen A. Quiroz Cuaron maixuaren eriotzaren berri ituna emanaz, eta bertan esaten zidan Omen-Liburu bat bere oroigarri prestatzen ari zirela. Oar au zuzentasunaren, azketasunaren eta gizonen adixkide jator zanari eskeini nai diot.

bearrean dagon arlo ontan, laguntzera etor ditezen dei egiteko. BIOTZA itz ontan maitasun eta barkamenaren jarrera berri ori ere sartu nai degu, orixe baita indarkeri-gaiztakeriaren gorakada ontan erabakirik onena R. GIRARD'ek bere azkeneko liburuan zenbait bider aipatzen digunez (1).

Batzuetan esan da presondegiak uts egin dutela, ez dutela fruiturik eman, ez dala eragille. Guztik bestela dela esan bearra dago. Bir-erortzeaz, leendabiziko eta bigarrenko ez bideratzeaz eta beste orrelako gaietaz egin diran ikasketak esabetezeraño agertu dute presondegia oso eraginkorra dela eta zer ikusi aundia daukala bertatzen igarotzen diren personentzat.

Esaten danez beste, Kriminolojiak egiztatzen duanez, eraikunde gutxik lortzen omen dute personeri eta gizarteari itxuratzeko presondegiak bezain ondorio sako-nagorik, naiz eta zoritxarez itxura ori kaltegarria izan eta ez mesedegarria.

Politikazko eta erlijiozko eraikundeak ziñezago presondegi-az eta beren ordezkoez arazotu eta kizkatu bear luteke.

2. GAUR-EGUNGO LEGEDIA

2.1. Españiko. Konstituzioa

1978'ko Abenduaren 29'an B.O.E.'en azaldu zan egunetik gaur daukagun Konstituzioak, askatasuna kentzen duan zigorreri dagokiena, bere 25'garren zatia- ren 2'garren atalean dakarki. Itzez itz onela dio: "Askatasuna kentzen duten zigorrak eta ziurtasunerako neurriak bir- eziketarako eta bir-gizartetzeko zuzenduak egongo dira eta ez dira izango katigu-lanak. Presondegirako zigorra ezarri eta zigor ori betetzen ari danak zati ontako oinarritzko eskubideak izango ditu, eman zitzaion epaiak zigorraren zentzuak eta baitegiko legeak mugatua izan ezik. Dana dala, egiten dituan lanagatik saria

(1) René GIRARD. Des choses cacheés depuis la fondation du monde. Paris, Grasset, 1979, 236 orriak eta urrengoak. Politikazko alderdiak eta erlijio eraikundeak presondegiz eta presondegi ordezkoez ajola geiagorekin jabetu eta kezkatu bear luteke.

jasotzeko eta Sozial-Ziurtasunari dagozkion obarien eskubidea izango du, eta baita ere kultur-bideak eta bere nortasunaren garatzeko osorako eskubideak ere”.

2.2. Arau zeatzek eta lege-egitamuak

Konstituzioak dauzkan zuzenbide arruntak alde batera utzita, Zigor-Legedian (23'tik 100'erako zatiak), Kriminal Auzigintzako Legean (502'tik 544'erako, 98'tik 998'rañoko zatiak), Arrixkutasun eta Gizartean Leeneratzeko Legean (5'tik 7'rañoko zatiak) eta bere Araudia (6'tik 49'rañoko zatiak) eta Adin gabekoen Auzitegi Babestaleen Legean (17'tik 21'erañoko zatiak), Españiko Baitegi-legedi garrantzitsuena datozten arau zeatz auekin tajutzen da:

1'go) Presondegietako Zerbitzuen Araudia, 1953'ko Otsaillaren 2'ko Aginduz ontzat emana.

2'garren) 1968'ko Urtarrilaren 25'ean emandako Aginduz 1956'ko Aginduan ontzat emandakotatik ogeitamai-ka zati aldatzen dira (eta auetatik ogeitamar zerao).

3'garren) 1977'ko Maiatzaren 23'ko Legea, Baitegieta-ko Arduradungoaren Taldeen Antolamentuari eta Baitegieta-ko Laguntzallegoaren sortzeari dagokiena.

4'garren) 1977'ko Uztailaren 29'ko Errege-Agindua, Baitegieta-ko Zerbitzuen Araudia nabarmen aldatzen duana (B.O.E. 210 zenb. 1977'ko Irailaren 2'koa).

5'garren) Militar-Zuzentasunaren Lege-Sorta 1945'ko Uztailaren 17'an argitaratua, geroxeago egindako eraberritze txikiakin (207'tik 247 rañoko zatiak).

6'garren) 1978'ko Abenduaren 22'ko Errege-Agindua (B.O.E. 1979'ko Otsaillaren 5'ekoa Militarren Baitegieta-ko Araudia ontzat emanaz.

Aipamen berezia zor zaio Baitegieta-ko Lege orokor-rraren Egitamuari. Bere aurre-egitamuak 1978'ko Maia- tzaren 20'ean auzetu zitzaion Zuzentasunaren Minis- troari. Egun gutxi barru, Españiko Lege-Biltzarreko B.O.'ak 1978'ko Irailaren 15'ean 148'garren zenbakian argitaratzen zuan Baitegieta-ko Lege Orokorraren Egi- tamua, eta dana ar, argibide baikor bat merezi du.

Egitamu onen lenengo idazketa Ministeritzako Ba- tzordearen ondorioa izan zan. Batzorde ontan berro-

geita amar bat personak lan egin zuten. Bertan Zuzendari orokor Carlos Garcia Valdes Irakasleaz gainera, besteen artean eskua eginkor eta tentuz sartu zutenak auek izan ziran: Enrike Ruiz Badillo Irakaslea, Baitegietako Zuzendaritza orokorreko Teknikazko eta Legezko Zuzendari bezela; eta Francisco Bueno Orús, Zuzentasuneko Ministeritzako Legelari Nagusia. Au idazten ari denak ere, bere eskua sartu zuan, gutxitan izan bazan ere. Zeatz esateko, nik eskatu nuana, naiz aintzakotzat artua ez izan, auxe izan zan: alegia, legean azal zedilla sozial-langillean laguntza eragillea berezkoa zala bereziki baitegira sartzera zihoan unean, eta baitegitik ateratzekoan. Baita ere, kultur eta jostaketa ariketarako agertu nituen asmoak uts egin zuten, ezta ere, etzituzten aintzat artu presondegitik atara ondorengo laguntzak, gaur ain eskasak.

Goitik legezko inguru-begiaz ikusita, orain ajola zai-guna da zuzenbide orokor, presondegi mota, presondegietako gobernua eta arduraduneri dagokien legedi onen garrantzizkoena agerian jartzea. Gero lege, auzitegi eta baitegi mallan azketasun kentzalle zigorren ordektazaz zerbait esango degu.

Militar baitegien aipamenik —zientziatzko aldizkari eta komunika-bideetan baitegi berririk ia ez bait zaigu ematen— garrantzitzuenak bakarrik dauzkagu; eta nasketari izan ez dedin, izki molde bestelakoekin aurkesten dira gudari-presondegiz soillik ari direnean (2).

(2) Militarren presondegiaz dagoen ixiltasunari dagozkionetan ere, salbuespenak legea sendotzen du. 1978'ko Irailaren erdi aldera Kanariasko Capitanía Generalak Las Palmas'en dagoen S. Franzisko gazteluko militar-presondegian, il onen amazazpian, izan zan suari zegokion oar bat argitaratu zuan. Su orren berri zabaldua zegoan, beste arraozien artean, Las Palmazko su-itzaltalleak parte artu zutelako. Oar orrek dionez militar-presondegi orretan "iru Gudal-Ostekoak" bakarrik daude giltzapetuak, eta orain 120 euki lezazken arren, 40 dira daudenak. Eta oarrak jarraitzen du; illaren 17'an gaueko amarrak laurden gutxiago inguruan, giltzapetuen artean zerbait izan zala eta aietako bi erasotuak izan ziran, eta orregatik beste giltzapetuengandik bakanduak izan ziran.

Andikan bi ordura, gaueko amabiak laurden gutxiagoan, denen aretoan giltzapetuak piztu zuten sua nabiatu zan, eta orrek beartuta su-itzaltzalleak etorri bear izan zuten Las Palmastik. Gazteluko Komandatearen eta bertako zer-

2.3. Zuzendaritz orokorrak

Gaur oraindik irauten duan Araudiaren lenengo zatian, 1977'an eraberritu zanez, Baitegi Eraikundeen elburu leenengoena ontzeko eta gizartean bir-gizartetzeko lana egitea bertan dauden atxilotu, giltzapetu eta epaituen edukitze zaintzeaz gaiñera.

1956'ko textoak zion, beren xedea ez zala bakarrik atxilotuak, giltzapetuak eta zigortuak euki eta zaintzea... baita ere eta lenen orrelakoekin ontzeko alegiak egitea Zigor-legediaren jakintzari zegozkion sustrai eta zuzenbidearen arauz.

Gaurko araudiak dionak ez du alde aundirik Konstituzioko 25'garren zatian bigarren atalean dionakin. Ara zer dion: "azketasuna kentzen duten zigorrak, eta ziurtasun neurriak bir-eziketara eta bir-gozartetzera zuzenduak daudela".

1978'ko Irailaren 15'ean Lege-Biltzarreko B.O. 148'garren zenbakia azaldu zan Baitegietako Lege Orokorrak bere lenengo zatian dio, lege onek araupetuak dauden Baitegietako Eraikundeak leenengo elburua auxe dutela: azketasuna kentzen duten zigor eta zigor-neurrietara epaituak bir-ezitzea eta bir-gizartetzea, atxilotuak, giltzapetuak eta zigortuak euki eta zaintzeaz gaiñera. Bigarren atalak auxe erasten dio: era berean bere gain daukate barruan daudenei eta azketuak izan direnei laguntzeko eginkizuna.

Militar presondegiak, 1978'ko abenduaren 22'ko Errege-Erabakiaren arauera, ez dute elburutzat baituak, giltzapetuak, epaituak eta atxilotuak euki eta zaintzea bakarrik, baita ere eta beste guztien gaiñetik beoiek ber-ezitzeko lanetan aleginduz beren irakaspena, lan giroan osatuaz, berriz militar-taldean sartzeko, edo ala ez balitz, ber-gizartetzea errexu dezakion. Ikusten de-

bitzuen, militar polizien, eta Gudal- Osteko zaintzalleen jarrera gogorraren aurrean, besterik, gabe giltzapetuak bere jarrera utzi zuten (El Pais, Irailak 21, 14'garren orrian) Eskerrak ematen dizkiogu Defensako Ministeritzari, Militar-Baitegietan (eta ez Gudari-Presondegietan) bataz beste 1978an zeudenen datoak.

Militar Baitegia	Urteko bataz beste
Alkala de Henares,en	128
Caranzako Mariñel Presondegia (El Ferrol)	52
Cartajenako Mariñel Presondegia	24

gun bezela Baitegi-Eraikundeen elburuak ia itz berdiñekin agertzen dituzte legezko arau auek gutzia.

Españiar teorilariak legediaren argitapena egitean, alde aundirik gabe(3), presondegiari bearrezkoa zaiola aurre-prestatze orokor eta bereziari laguntzea esaten dute: beste itzez esanda, gizartearen beste itxura zintzoago eta giltzapetuaren ber-nortasuntzeari begiratu bear diola.

Jatorri askotariko eragozpenak galerazten diote presondegi-eraikundeeri legeak eta irakaspenak maiko lituzken elburu oiek lortzea.

3. BAITEGI ETA OIETAN GILTZAPETUEN MOTAK

Badira zenbait baitegi mota eta oietan batzuek gizonetzkoentzako eta beste batzuek emakumezkoentzat direnak. Salbuespen bakar batzuek izan ezik, emakumezkoentzat direnak gizonetzkoentzat direnak baño askoz txarkiago zaituak daude. Zeatz esateko, adibidez, kultur ekintzei, liburutegietako zerbitzuei, ekonomatoei, T.B. eta abar, ardura gutxiagokin begiratzen zaie eta toki oietarako artaratutako persona gutxiagokin.

Oiñarrizko sailkapena iru atalduna da: epai-aurreko edo atxilotuen baitegia, zigorra betetzeko edo zentzaratzeke baitegia, eta azterketak egiteko baitegia.

Epai-aurreko baitegiak, lurraldeetako edo probintziarteke giltzapetuak eta: atxilotuak euki eta zaitzeko dira. Eta giltzapealdi edo beste azketasuna kentzen duten zigorrak betetzeko balio dute, baldin giltzapean egon bearra sei illabete baño gutxiagokoa bada. 1978'ko urtean onelako tokiak 22 ziran.

Orain dala gutxi izan diran matxinadak giltzapetuen erdiak bizi diran toki Zigorra betetzeko edo zentzatzeko diran baitegiak azketasuna galtzea berekin daramaten epaiak betetzeko dira. Zentro auek izan ditezke:

(3) Bir-gizartetzearen burutapenari eta errealidadeari edo utopiari dagokioirizpide egokiak ez dira falta. Cfr. F. Muñoz Conde. La resocialización del delincuente, análisis y crítica de un mito, en Cuadernos de Política Criminal, n.º 7 (1979) pgs. 91 ss. A. BERISTAIN, El Abogado del Diablo, Rev. Est. Penitenciarios (Oct.-diciembre 1084) orriak 713-724.

1'go) *Gaxoak zaintzeko edo laguntzeko zentroak.* 1978'garren urtean gizaseme eta emakumeentzat amar zentro zeuden eta bertan zeudenak denen arteko emarena zan. Zeatzki esateko, 1978'ko Maiatzean, beren etxepean epai-aurreko eta zigortuen artean 1.116 persona zauden. Zoritzarrez Españian ez dago birlengoratzeko Zentro bat bakarrik. Leen bi zeuden; Jerez de la Frontera eta NANCLARES DE LA Ocan.

2'garren) 21 urtez beerako gazteentzat etxapeak. LAU DAUDE: Teruel'en (itxia), Lerida'n (tartekoa), Lirian eta Vigon (irekiak). Orrezaz gaiñera ba'dira beste lau etxape 21 urtetik 25'erañokoentzat; Ocaña (itxia), Alcalá de Henares, Jerez de la Frontera (tartekoa) eta Toledo'n (irekia).

3'garren) Etxape arruntak. 1978'an ba ziran gizaseme eta emagumezkoentzat 22 zentro eta oietan, Maiatzean 3.859 persona zeuden. Etxape arruntak 3 molde-tan bir-zatitzen dira: legepe itxikoak, legepe tartekoa eta legepe irekikoak.

Azken auetara, edo asieratik edo jardun baten bidez onean aurreratzen joan direnak, eta legepe azketuan bizitzeko lain direnak aukeratzen dira (4). Legepe tartekoa dira bir-gizartetzeko baldintzik onenak dituztenentzat. Legepe itxikorako onbideratzeko jardunaren kontra edo egozkor agertzen direnak.

1979'ko urte onen Uztailarako zearo berria eta ziurtasun aundieneko Zentro bat, 260 giltzapetuentzako, Ciudad Real probintziako Herrera de la Mantxan jarriko dela iragarria dago. Presondegia ontara beren agirian agertzen diranez burrukalariak, gogorrenak, arrixkugarrienak diren giltzapetu arruntak, epai-aurrekoak edo zigortuak aldatuak izango dira. Etxekuntza zazpireun milloi kosta da. Eun eta amar arduradun izendatuko dituzte ziurtasun aundieneko Zentro ortarako. Baitegi ontan edo onen antzeko beste batean zigortuetatik % 6 giltzapetu egongo dirala jotzen da, eta bertan illabete batzuetan egongo direla.

(4) 1977'ko urtearen bukaeran etxape ireki auek zeuden: Mirasierra (94 zigortuekin), Liria (10 zigortuekin), Herrera (80 zigortuekin), Lerida (32 zigortuekin), Castillejo (16'kin), Alcalá, Valencia, Burgos, eta Madrid (emakumeentzat).

Ez al dira baldinbait ere giltzapetu auek ugarituko, eta "super-presondegia"an egotea luzatuko.

Azterketa egiteko baitegiak, auziko eskabideak bear duen neurrian eta errian, eta nai ta naiez bear dan aldirik laburrenean eukitzen ditu detenituak, bañan, bein eskabide oiek bete ezkeru, berai dagokion zentrorra eramanak izango dira. 1978'an orrelako 18 Zentro zeuden, eta bertan guztira 935 persona, gizaseme eta emakume zeuden, batzuek zigortuak bañan geienak epai-aurrekoak.

Presondegia Eraikundeetako Zuzendaritza Orokorra- ren azkeneko Txostenaren datoen arabera, Españiko Estaduan 1978'ko Urtarrillaren batean Españiko Presondegietan, guztira, 9.037 gizaseme zeuden barruan, auetatik 3.927 zigortuak ziran, 4.879 epai-aurrekoak, eta bidenabar zeudenak 231. Aldiz, 1978'ko urte berean Abenduaren 31'n, guztira, 10.101 giltzapetu zeuden; eta auetatik 4.205 zigortuak ziran, 5,657 epai-aurrekoak eta bidenabar zeudenak 239.

Emakumezkoen Eraikundeetan, 1978'ko Urtarrillaren batean 355 ziran barruan zeudenak, auetatik 119 zigortuak, 233 epai-aurrekoak eta 3 bidenabar zeudenak. Urte ontako Abenduaren 31'n 362 barruan, auetatik 105 zigortuak, 251 epai-aurrekoak, eta bidenabar zeudenak 6. Urte bitartean gizasemeetan guztira 79.241 alta izan dira, emakumeetan berriz, 3.714. Iiaz, 1977'an 79.828 persona giltzapetuak izan ziran, au da milla biztanletatik millako 2, 15.

1978'ko Abenduraño militar presondegien araudia sakabanatua, askotarikoa, irizpideen batasunik gabea, eta malla ezberdiñetakoa: gazteluak, fortalezak, presondegiak edo giltzapeak. 1978'ko Erakabia bete bearreko egin zanetik bi etxape mota daude; baitegiak eta presondegiak.

Militar baitegietara izendatzen dira baitegi arruntetan bete bear ez diran sei illabetetik goragoko zigorra betetze ari direnak.

Gudari-presondegietan katigu zigorra, edo luzegorako azketasuna kentzen duten zigorrak betetzen dira, bañan zigor osoa betetzeko sei illabete edo gutxi ago gelditzen zaizkien epaituak. Presondegia auetan sartu ditezke baita ere, mitar-giltzapean zentza-zigorra betet-

zeco eta detenitu edo epai-aurreko atxilotu egoeran daudenak, bañan giltzapetuentzako bear dan bereizkuntzakin.

4. BAITEGIETAKO GOBERNU ETA TRATABIDEA

Orain laburki eraketa aurrerakoiari buruz (lau malla) zertxobat aipatu nai dizuegu, alegia, tratabiderako irizpideak, sariak, eta zentzabideak baitegietako erakunde arrunt ea militarrenetan.

4.1. Eraketa aurrerakoia

Sei illabete baño geiagoko azketasuna kentzen duten zigor-sari eta neurriak, 1968'ko Urtarrillaren 25'eko eraketa aurrerakoiak eraberritu zuan Erabakiaren arabera bete bear dira. Baitegietako Lege Orokorren Egitamua, uste degun bezala, ontzat ematen bada, eraketa au oraindik geiago gaurkotuko da.

Gaur oraindik indarra daukan legediaren arabera, gure eraketa aurrerakoiak lau malla izango ditu.

1. Giltzapean dagoanaren bir-eziketa.
2. Konfiantzazko giro batean zuzendutako tratabidearekin bir-gizartetzea.
3. Azketasun-aurrea.
4. Baldintzapeko azketasuna.

Lenengo iru mallak leen aipatutakoei dagozkienak dira, au da, legepe itxikoak, legepe tartekoak, eta legepe irekikoak. Laugarren maillak baldintzapeko azketasunentzako Zigor-Legediak aipatzen dituan araueri jarraitzen die (98 eta 99 zatiak).

Etxape bakoitzean Batzorde bat eta Tratabiderako Lagungo bat (ekipo) daude eta auek, ortarako berarizko ikasketak, gutxi edo asko, egin dituzten personon bitartez planeatzen eta kontrolatzen dute giltzapean daudenen tratabidea. Sailkapenerako zailtasun bere-

ziak gertatzen diranerako, Carabanchelen, dago zuze nean Zuzenbide Orokorren menpean Oarketarako Zentrala. Zentral ontatik igarotzen dira etxape bakoitzeko lagungoarentzat zail eta zalantzakoak gertatzen diran giltzapetuak. Eun eta berrogeitamar gizaseme igaro oi dira urtero.

Adibidez, 1977'ko urte bitartean etxape ontan 152 alta eta 160 baja izan ziran. Abenduaren 31'n 36 zeuden barruan. 1978'ko urte bitartean etxape ontan 173 alta eta 153 baja izan dira. Abenduaren 31'n 37 persona zeuden. Guzirako zenbaki auek denak gizasemeeri dagozkie. Oker esan ez badigute beintzat, Oarkuntzako Zentraletik ez da emakume bat bakarrik igaro.

Teoriaz, legearen arabera, oarketarako lagungoak eta tratabiderako batzorde eta lagungoak giltzapeko bakoitzaren estudio bat egin bear dute, eta bakoitzari dagokionez, tratabiderako egitaraua planeatu; bañan bakoitzaren naiz bakoitzaren ez diran bideen faltan eziñezkoa egiten da naigendukena lortzea.

Militarren Baitegietarako, 1978'ko Errege-Erabakiak, bere 4'garren Tituloan neurriak eta zentzabideak aurre-eramateko arauketak ipintzen ditu. Bere 74 eta 119 zatietan zer eta nola jokatu bear dan eriotz zigorrari dagozkionetan (5) eta nai ta naiez'ko lanetan, eta batez ere 79'tik 92'ra dijoazten zatietan lau aroetan banatzen dan arauketa aurrerakoia arautzen da.

Lenengo aroa zigortua aztertzeko da bere nortasunaren arabera sailkatua izan dedin. Ortarako bakar-gelako legeari jarraitzen zaio, eta zigortuari illean bi bider familiakin egoten uzten zaio eta lau bider idatzi lezaioke. Aro onen iraupena zigortua nola portatzen dan dago, eta zortzi egunetik ogeitamarreko tartean ibiltzen da.

Bigarren aroa lan ariketarena da, zigortua lankizunon bat ikasi edo dakianean jardun dedin. Elkarretiko

(5) Eriotz-zigorrari dagokionez zati auek bakarrik dira irauten dutenak Españian, ba Konstituzioak bere 15'garren zatian onela dio "Eriotz-Zigorra kenduta gelditzen dala, militar Zigor-Legediak guda aldietarako erabakia daukana izan ezik".

bizitza egingo du, bañan ixil-araupen, gaueko orduetan irugarren aroan daudenengandik bakanduta. Garai ontan illean lau izketaldi izan lezazke, eta astero idatzi eta ekonomatoan gauzak erosi lezazke.

Irugarren aroan giltzapetuak elkarte-bizitzan daude, mekanikazko lan ariñetan jardutzen dute, eta itzeko artu-emanak izan eta sarriago idatzi lezazke. Aro ontako zigortuei presondegia bertako gobernuako laguntzalle izan eta destinetako deitzen zaie.

Laugarren aroan baldintzapeko azketasunean betetzen da, Militarren Zuzentasun Legediak 246 eta 247 zatien arabera: auek iia Zigor-Legedi arruntaren arauak errepikatzen dituzte. 246 zatiak soilik, azketasunean bizitza zintzoa egin dutenaren baikuntza eskeintzeko esan ondoren, onela jarraitzen du "persona paketsu eta langilleak bezela".

4.2. Tratabiderako irizpideak

Españiko Baitegietako legepe orokorrak zuzentzen duten irizpide nagusienak teoriz beintzat, auetzek dira;

- Zientziako erarik gaurkoenaren laguntzarekin epaituak ber-ezitzea eta ber-gizartetzea nai litzake.
- Barrenekoak tratabideak erabakiko duanaren arabera taldeetan bereiztea.
- Beren eziketan barruan daudenak agertu dituzten utsuneak betetzeko laguntza.
- Min emateko izango ez dan lanen bat eskeintzea, Nazio-Arteko lan Antola-menaren 105'garren Itunean ipintzen duana kontuan arturik.
- Baitegietako lantegien Antolamentu eta Ibiltzea.
- Osasunezko, garbitasunezko, janedanezko arauketa egokia.
- Barruan daudenak erabidezko oituretara, norberregandiko arauzaletasunera, lanerako ajola eta norbere erantzunkizunaren zentzuaz jabetzera eramateko joera duan araupeko gobernu.

Auek eta onelako beste teoriako irizpideak akats gelegi izaten dituzte betetzekoan. Adibidez, ez da sarritan barrukoentzat lanik izaten, eta balinbadago ezta

beoientzat eta beren familientzat on eta premientzat oso egokia izaten.

Geienetan, badute giltzapetuak sarbidea lanaren bidez zigorra gutxitzeko oizko españiar eraikundea (naiz ez ain sollik espāñiarra), orrela, beren erabateko ezketasunari begiratzuz bi eguneko lanagatik, beren zigorretik egun bat gutxitzen zaielarik. Baita ere, kontuan artzen da gutxitu duen denbora, bere kasuan, balio dezakela baldintzapeko azketasuna eman dezaieten. Lanaren bidez zigorra gutxitzeak 1977'ko Erabakian zabalpen bat izan du. Zabalpen au saria bezela artua izan diteke (cfr. 71'ko zatian, lenengo eta bigarren atalean, eta 109'zatian, 2'garren atalean), urrengo kapituloan ikusiko degun bezela.

Gudarien presondegietako 1978'ko araudia oso itz gutxikoa azaltzen da tratabideaz itz egitean. Interes berezia eskeintzen digute 84, 93 eta 99 zatiak.

Legearen 84'garren zatiak dionez, aro batetik bestera igotzeak Portaeraren Batzorden Iritz-Emallearen asmoa agertuta gero, norbakoitzaren agiriak eta sailkapeneko txartelak ikusi ondoren nai ta naiez Gobernatzalleak erabakiak izango dira. Erabakiak sailkapeneko txartel oietan idatziko dira.

Ezin liteke eman iñungo aro igotzerik, lendabizikotik bigarrengora izan ezik, epaitu norbakoitzaren agiriari beste agiri auek batzen ez bazaizkio: baitegiko Gobernatzalle ordekoarena, bere baitegiko portaerarena, eta lanerako bere alegin eta arratarena, eta baita ere kapellauarena eta maixuarena aueri dagozkionetan.

1945'eko Militar Zuzentasunaren Legediak aipatzen ez duan delako Lanaren Bidez Zigorra Gutxitze ori araudi ontako 93'ko eta 99'ko zatiak eta 1952'ko Otsaillaren bateko Erabaki- Legeak dionez erabiltzen da. Lanaren Bidez Zigorrak Gutxitzeko Militar Batzorde Zentralaren Araudi provisionalak ortarako emanak dituan edo emango dituan argitasunarekin.

4.3. Sariak

Aipatutako 1977'ko Erabakian, nere iritzian irizpide baikorrenekin, aldatu eta zabaltzen diran sariak aipamen berezi bat egitea bearrezkoa zaie. Sarien artean gogoragarrienak, igande eta jai egunetan, eguerdiko 11'tatik arratsaldeko zazpirak arteko, presondegia da-

goen tokian beren etxeokakin pasatzeko baimenak dira. Arreta aundiagoa merezi dute 24, 48 eta 82 orduko, eta noizik eta bein aste bateko baimenak, lenengoan izan ezik, giltzapetua dagoen maillan dagoela. 1978'ko urtean zear 19.000 irtetzeko baimen eman ziran, eta % 2 uts egin zuten.

Legeak auen antzeko beste sariak emateko baimena ematen du eta "antzeko" bezela artzen dira telefonoaren bidez izaten diran artu-emanak (109'garren zt).

Sari auek Nazio Batuetako Gutxiengoen Araudietako 70'garren Arauan emandako arian daude. Zoritxarrez, Europako Konseilluko Ministroen Batzordekoak 1973'ko Urtarrillaren 19'an(6) ontzat artu zuten Gutxiengoen Araudietan ez dira agertzen (73) 5. Erabaki onek sari eta pribilejioari dagokiena 70'garren arauak dakarkienez ez ditu aipatzen.

Baitegietako Eraikundeak dagokion 1978'ko Abenduko Errege-Erabakiak joera antzekoarekin, bere 73'garren zatian, sariak oi ez bezalako artu-emanetarako bakarrik gutxitzen ditu, edo amar egun goragotik ez diran mekanikazko zerbitzuetatik libre ustea, legepe aurrerakoiaren barruan dagozkien obeagotzearen kalterik gabe.

4.4. Zentzabideak

Zati au bukatzeko, giltzapetuei egiten dituzten utsegiteagatik ezartzen zaizkien zentzabideaz zerbait esan dezagun. 1977'ko Uztaren 29'ko Erabakiaren eraberritze ezkeroztik, baitegiko araubidearen aurka utsegite oso aztunak egiten diranean zentzabide edo zigorrak izan litezke:

- Aozko artu-emanak gutxienekoak diran 15 minuturaño mugatzea, eta amaikatik ogeiraño artu-emanak.
- Bere gelan bakartzea.
- Bakartzeko gelan 9'tik 16 eguneraño sartzea. Iñoiz, berriz erori dalakoan edo, 24 eguneraño luzatua izan liteke, edo eta bein eta berriz erori

(6) Cfr. A. BERISTAIN, Crisis del Derecho represivo (Orientaciones de Organismos nacionales e internacionales) Madrid, Edicusa 1977 179 eta 187 orriak.

bada 32 eguneraño ere. Azkeneko ontarako Zaintzako Epaleariaen baiezkoa bearrezkoa da.

— Irtetzeko baimena irixteko 6 illabetetik urtebeterañoako debekua.

1977'ko eraberritzearen aurretik, legean eta jardunean zigorrak askotxoz zorrotzagoak ziran (7).

Zoritxarrez, zeintzuk diran utsegite astunak eta zeintzuk oso astunak esateko 1958'ko araudiak irauten du. Adibidez, utsegite oso astuntzat artzen da biraoa botatzea, erlijiozko siniskizumen aurka lotsagaberiak edo iraiñak esatea, moral edo oitura onen aurkako ekintzak egitea eta abar.

Baitegietao Lege Orokorren Egitamuko baitegi-ko gobernuari dagokion 5'garren zatian ez du ipintzen zer portaera artu bear diran utsegite astun edo oso astuntzat.

Militar-Baitegi Eraikundeentzat balioko duan 1978'ko Abenduko araudi berriak, utsegite astun eta oso astunak azaltzean, leenagoko zorrotasunari eusten dio, baita beren zigorrari dagozkionetan ere.

1958'ko Araudi Orokorak bere 112'garren zatian, ia itzez-itz arauketa berbera dakar oraindik utsegite astunetzaz dagozkionetan. Eta utsegite astunen zenbaketa in malam partem analojiari ate bat irekiaz bukatzen du (eta dana ar, aiurri ontako egite edo ez egitea), eta au 1958'ko araudiko era baño askoz zorrotzagoa da: "eta dana ar, edozein delitu izan liteken egite edo ez egitea".

Utsegite oso astunentzat bi erru-sari dira:

— ogeitabatetik berrogeirañoeko egunetan zigorgelan giltzapetzea, eta

— aro batetik bi aroraño baitegizko aroen atzertzea. Gaiñera gelan giltzapetuak egoteak berekin dakar, eraskin bezela, irauten duan bitartean, elkarrekin ibiltzeak eta jolas-aldirik gabe, itzez eta idartzeko artu-emanik gabe, arauzko otordua besterik gabe, bere diruaz bere gogora gozatu gabe, eta destino gabe geldid.

(7) Cf. A. BERISTAIN, *El delincuente en el Estado Social de Derecho*, Madrid, Reus, 1971, orriak 22 eta urrengoak. 1970'ean biraoak botatzeagatik zigor oso astunak ezarri zitzaizkien giltzapetuei.

tzea, eta ori gutxi balitz bezela, lanaren bitartez zigorrak gutxitzearen irabaziak eten da gelditzea.

45. **Berdinketa Laburra**

Interesgarria izango litzake Militar Eraikunde eta arrunten arteko gobernu eta tratabideen berdinketa bat egitea. Emen lekurik ez daukagulako, bakar-bakarrik alde nabariak daudela esan genezake. Kapellauak, esate baterako, presondegi arruntetan, zorionez, bere aspaldiko itxurak eta presondegietako aintzinako arauetatik jasotakoi oiñordetzatik zetozkien egiteko zarrakituak aiek galdu ditu. Baña ez 1978'ko Araudian, eta au erlijioaren eta gudaroztearen kaltean dijoa.

Militar-Eraikundean barruan ere, ezberdintasun nabariak daude. Zeatz esan da, itzezko eta idartzeko artu-emanak naiko bestelakoak dira ofizial edo subofiziale-nak izan, edo soldadu soil edo mariñel soil mallakoak izan. 128'garren zatiak dionez, Ofizial edo Suofizial giltzapetu edo atxilotuak, nai badute, ikustaldiak izan ditzazkete ikustaldien gelan edo beren gelan atea irekita utziz. Soldadu eta mariñel soillak, berriz, ez dauzkate orrelako eskubiderik ikustaldietan. Eta au oso nabarmen agertzen dan gauza da, gogora ekartzen baditugu Españiko militarrenak ez diran Presondegiko Eraikundeak, eta auen mintzategi ain nekagarri eta biotz gabek.

Bestalde, soldadu eta mariñel soillen artu-emanak badituzte zorrozkeri aundienaren ezaugarri batzuek. Adibidez, 139'garren zatiak agintzen du zerbitzuan dagoan Zelataria oartuko balitzake ikustaldi bitartean ikustari eta ikustatuen artean baitegiagatik edo agintariegatik gaizki esaka ari direla, edo bi zentzuko itzak erabiliko balituzteke, edo izketaldia susmagarria egiten duan izkuntzan izango balitzake, artu-emanaren atentzeko eta barrengo zerbitzuan dagoan ofiziala jakina-aren gainean jartzeko egoki derizkiona erabaki dezan.

Agian, oro ar, esan diteke militar Baitegiko Eraikundeak arruntakoenak baño zorrotzagoak direla. Baiñan, salbuespen nabariak dituzte, adibidez, aipatutako 128'garren zatia. Bestalde, Baitegi arrunten Eraikundeak, gei-

ago begiratzeko dio legetasunaren sustraiari, naikeriari muga aundiagok ipiñiaz.

Baitegietako Lege Orokorren Egitamuak ez du ezer zeatz esaten ikustaldi oiek nola izango dirani dagokionez; 51'garren zatiaren arauz erabakitzeke esaten du.

5. BAITEGIKO ARDURADUNAK

Baitegiko arduradunei dagozkien legeak leen aipatutako 1977'ko Maiatzaren 23'ko legean daude baitikpat arautuak, eta bere 6'garren zatia edatzen duan 1977'ko Abenduaren 1'eko Errege-Erabakian, eta baita ere, arautuak daude 1970'ko Abenduaren 22'ko Baitegietako Arduradungoaren Ber-egitupenaren legean.

Baitegietako arduradunetan zenbait mailla daude. Emen guretzat aipagarrienak auek dira, batez ere, Teknikoen Taldea, gizasemeen Talde Berezia, emakumezkoen Talde Berezia, eta Laguntzalleen Taldea. Ez degu ezer esango Baitegietako Osasun Sendakintzako Taldeaz, Kapellau Taldeaz, Oiñarrizko Irakaskintz Orokorren Irakasleen Taldeaz., eta abar.

Teknikoen Taldea 1970'ko Abenduaren 22'ko Legeak sortua izan zan. Bere elburu barruan daudenen oarketa, sailkapena eta tratabidea egitea batez ere. Kriminoloji, Psikoloji, Pedagoji, Psikiatri, Endokrinoloji, Sozioloji eta Moralean ikasiak direnak osatzen dute. Teknikoen Taldean sartzen direnak teknikazko Unibersidadeko Irakaskintza Nagusiko tituloa izan bear du eta bere espezialtasuna egiztatu.

Talde Bereziari, gizaseme Talde Bereziari eta emakumezkoen Talde Bereziari dagokie Teknikoen Taldeari laguntzea eta arauak ondo bete ditezen eta baitegiko martxa guztia ondo joan dedin begiratzea.

Talde Berezian sartzen direnak bearrezkoa dute ijeneru teknikoaren, arkitekto teknikoaren, Unibersidadeko diplomadun, irugarren maillako edo kideko profesional ikaskuntzako tituloaren jabe direla egiztatzea.

Talde Bereziaren barruan aparteko aipamena zorzaie ezitzallei, auek ez baidaukate begiratzeko edo zain-

tzeko egitekoa, baizik eta, barruan dagoanaren beretasunaz eta nortasunaz oartzuz, eta bere konfiantza irabaziz, elkarekiko lan batekin oarketa obeagobat egiaz orrela ezagutuagoa izanaz, tratabide egoki bat izan dezan. 1968'ko Urtarrillaren 25'ean emandako Erabakiaren 52'garren zatiak sortuak izan direla esan ditekete. Esandako 52'garren zatiak dio: "Tratabide ori emateko Baitegi bakoitzean, lagungo baten barruan, bereiziki artaratutako zerbitzu bat "prestatu bear da".

Laguntzalleen taldea 1977'ko Maiatzaren 23'ko Legeak sortu zuen, lengo taldea aldi berean kenduaz. Laguntzalle talde auen egitekoa da Baitegi barruak begiratu eta zaitu, barrukoen portaera eta ordena zaitu, txukuntasun eta garbitasunari begiratu, oarkuntz lagungoari eta Tratabideko Batzordei bere begiz ikusitakotik lortu dituzten barrukoen portatzearen datoak eraman, eta azkenik ber-ezitzearen eta ber-gizartetzearen lanetan esku artu.

Laguntzalleen Taldeko izan nai dutenak batxiller nagusi, edo kidekoaren tituloa bear du, eta Carabanchel'en dagoan Baitegietako Ikaskizunen Eskolan egitaraututako ikastaroa gainditu. Onen antzeko ikastaro bat egiten dute len esandako ezitzalleek ere.

Gaur-egun lau milla bat arduradun daude, baiñan ez berdin banatuak. Eunekoa ez da berdiña presondegi guztietan. Orregatik, ez da egia gertatzen barruan dauden iruentzat arduradun bat dagoela. Gaiñera, burukrazizko lanetan arduradunen euneko berrogeitamar gutxi-gora-bera aritzen direla, agian, esan liteke barruan dauden zortzirentzat arduradun bat dagoela.

1936-1939'ko guda bukatzean baitegietako arduradunak irabaki zuten aldeko soldaduetatik edo guda-lostetik zetoztenak ziran. Gaiñera, anai arteko burruka ezkeroz 1974'eraño Baitegi-Eraikundetako Zuzendari Orokorra beti militar bat izaten zan (8). 1956'ko Araudiak atea ireki zien Legedian Lizentzidunei zuzenean Lizenziatuen artean ikastaldi bat ipiñiaz Zerbitzuetako Buru izango ziranak aukeratzeko. Ate au, 1964'ean López Rodó Ministroak Función Pública deritzaiona eraberr-

(8) 1971'an oitura au ez nuala ontzat ematen agirian esan nuan, cfr. A. BERISTAIN, El delincuente en el estudio social de Derecho. Coordinadas para una reforma penitenciaria. Madrid, Reus, 1971, 38 orriak.

tu zuanean itxi zan. Zorionez, 1970'ko Abenduaren 22'ko legeak. Teknikoen Taldea sortzean, Baitegi-tako Taldeen aldaketa baikor bat aal izateko ate bat ireki du. Baiñan, zoritxarrez, diruaren gutxiagatik, eta Baitegi-etako Ikastaldiko Ikastolarako emaitz gutxi izaten direlako, Baitegi-Eraikunde-tako Arduradunak ez dira naiko litzaken bezela eskolatuak izaten, eta bere egitekoa ez dezakete bete naiko luteken bezala.

Baitegi-talde-tako besaeria (plantilla) 1977'ko Maiatzaren 23'ko Legeak dionez ondorengo kuadro oni dagokiona izango da:

	<i>Teknikoen Taldea</i>	<i>Gizasemeen Talde Berezia</i>	<i>Emakumeen Talde Berezia</i>	<i>Osasun Sendak. Taldea</i>	<i>E.G.B. Irakasleen Taldea</i>	<i>A.T.S. Taldea</i>	<i>Kapellau Taldea</i>	<i>Guzira</i>
Urtea 1977	106	1.130	81	61	67	73	69	1.587
Urtea 1978	121	1.224	110	76	74	83	74	1.762
Urtea 1979	135	1.318	139	89	79	93	79	1.932
Urtea 1980	155	1.412	168	102	79	103	79	2.098
Urtea 1981	170	1.506	197	115	79	113	79	2.259
Urtea 1982	170	1.600	225	125	79	122	79	2.400

Militar presondegi Eraikundeetan arduradunei dagokiena oso era bitxi batean arautua dago Araudiko bostetik Ogeitamazazpirañoeko zatietan. Militar baitegi eta militar presondegietan agintea eta arduradunak nabarmen bereizten dituzte. Lendabiziko bakoitzetan Koronel edo Gudontziko Kapitain bat, Gobernatzallearen aginpideakin, Teniente Koronel edo Fragatako kapitaina Gobernatzalle-ordeko baten aginpideakin eta Komandante edo Korbetako capitain bat Detall deritzaienaren buru.

Besaeria osatuko da:

- Ofizial bat Sekretario bezala, eta beste lau, gutxienez, barruko ofizialaren zerbitzurako.
- Subofizial bat, Sub ajudantearen egitekoa bateko edo Subofizial de Cargo.
- Intendentzi, Osasunkuntza eta Elizezko Taldean Buruzagi edo Ofizial bat, administrakuntzako, osasunkuntzeko eta espirituzko laguntzaren zerbitzurako.
- Sendagille-ordeko, Zelatari edo Giltza-zein, Begirale, Gaxo-zain, Bulegotako laguntzalle eta Mutil eta besteaz gaiñera, Baitegiak eskatu lezazkenaz Subofizialetatik eta soldadu edo mariñelatatik eta zibiletatik arduradun bada edo ez bada izentatua izango da.

Militar presondegi bakoitzean Buruzagi bat egongo da Gobernatzallearen aginteakin. Eta lurralde bakoitzeko Epai-aginteak Defensaren Ministeritzari presondegi bakoitzeko Besaeria (plantilla) aurkeztuko dio, zerbitzuen, bere lekune eta militar maillari dagokionez.

6. AZKETASUNA KENTZEN DUTEN ZIGORREN ORDEZKOAK LEGE, EPAI ETA BAITEGI MAILLAN

Diruzko eta gorputzezko zigorrak ziran garai batean Iberiako erdi-ugaratean zigorrik nagusienak. Gaur-egun gure legedi eta jardunak geienetan azketasun gabetzea ezartzen du, eta salbuespenak izan ezik, azketasunean zigorra betetzeko itxaropenik gabe.

Gaur ordea, jakintza beste bide batetik dijoa aurrea: zigorrik nagusia diruzkoa izan dedilla eskatzen du, ez azketasun-gabetzea, eta batez ere, legezko, epaiezko eta baitegizko bakoizteak azketasun-gabetzearen ordezkoko geiago sartu eta ezarri ditzala.

Azketasun-gabetzearen ordezkoko beste zigorren aukerabideen gaiaz ajola geiagorekin itz egin bearko litza-keela uste degu eta, batez ere, orain arte ezagutu deguan baño eradunagoa.

Ez da naastu bear legeak eskatzen duan edo baieztan duan aldaketa, epailariaren edo baitegitako administrakuntzako agintarien esku dagoen aldaketakin. Ezta ere, ez dago ondo azketasun-gabetzearen ordezkoko oizko gaiztegitzaren kriminaltze ezaren eta zigortze ezarekin naastea.

Asi gaitzen ordezkokoak esaten legezko bakoiztea egi-tera dijoan garaian.

6.1. Lege mailla

Gizaldi onen asieratik Españiko Legedia azketasun-gabetzen dutenen zigorren ordezkotzat azketasunean bete litezkenak arautzen ari da. Oroimen berezia zor zaie baldintzapeko azketasunari, multari, portaeraren baikuntzari, agiriko edo bakarkako errietari, azketasuna mugatzeko zigorrari, beste eskubideak mugatzeko zigorrari, bereziki autoa ibiltzeko karnetaren kentzeari, aste buruko atxiloketari eta baldintzapeko kondenari.

Baldintzapeko Azketasuna

Baldintzapeko azketasuna 98 eta 99'garren zatietan arautzen ditu Zigor-Legediak. Bere aurrekoak 1914'garren urteko Uztaren 23'ko Legean ikusi ditezke. Bere zenbait baldintza, eta expedientean egon bear duten agiriak 1968'garren urteko Urtarrillaren 25'eko Erabakiak eraberritutako iskribuan zeazten dira, 1956'garren urteko Otsailaren 2'ko Presondegietako araudiak. Zigortuari zein erritan ipiñi naiko luken bere egon-tokia esateko eskatzen zaio, azken ateratzen danerako lanik edo bizi-biderik bai al dun, eta Zaindaritzazko eta Laguntzazko Antolamentuko ordezkariaren bijilantziari menderatzen al zaion. Egingo zaion expedientean egon bear dute lanaren bitartez zenbat denbora gutxitu duan

baieztuko duten agiriak, giltzapean egon danaren oarketa eta baitegiko tratabidean eskua artu duan Lagungoaren txostena, giltzapetuak bere jardun baikorra-ekin ber-gizartetzeko agertu duan asmoa kontuan ar-tuz, mesede ori egiteko abagune egokia ote dan azal-duaz.

Bein expedientea osatu ezkerro baitegiko Gobernu-Batzordeak aztertzen du eta egokia arkitzen badu, Baldintzapeko Azketasunaren Probintziko Batzordeari bialtzen dio. Probintziko Batzordeak amabostero aztertzen dituzte agertzen zaizkien txostenak, eta onek arrazoitu-tako txostenekin Presondegietako Zuzendaritza Oroko-rraren baldintzapeko azketasunaren Sailera bialtzen di-tuzte, eta onek aurrera jarraitzeko dauden legezko era-bakiekin ondo badatoz, Andre Maria Mesedekoaren Zaintzago Batzordearen (9) mendean ipintzen ditu, oni ondo iruditzen bazaio, erabateko erabakia eman dezan Ministro Batzarrak, Zuzentasuneko Ministroari bialtzen dio.

Militar Auzitegietan baldintzapeko azketasuna ema-teko egikera, baitegi arruntetako legediaren kideko izan-go da, bañan ez ditu aaztuko Militar-Zuzentasunaren Legediko 1.101'garren zatiak dion bezala, Militar Minis-teritzako departamentuetatik datozen erabaki bereziak.

Multa

Españiko Zigor-Legediak naiko sarri ezartzen du multa, eta batzuetan baita ere, azketasuna kentzen duan zigorraren ordezkoko aukera bezela, zigor ori geienetan atxilotze aundia edo txikia izaten da. Kasu batzuetan, Zigor-Legediko 252'garren zatiak, adibidez, legeak az-ketasuna kentzea, edo erbestea eta multa batera ema-teko aukera ematen dio Epailariari.

Multa izan liteke baita ere, azketasuna kentzen du-anaren zigorraren ordezkoa, eta zeazki atxilotze aundi-arena, Zigor-Legediko 74'garren zatiaren arabera, ba onek 20.000 pestatik 200.000'rañoko multa (1978'ko Maia-tzaren 8'ko Legeak multen kopurua aldatu egiten du)

(9) Andre Maria Mesedekoaren Zaintzaritza, egia esan bear bada, borondate on bañan eragin gutxiko eta gai auetan bear bezalako eskolarik gabekoak eta lan oni bear ainbat emanak ez dauden personak osatzen dute.

73'garren zatiak dauzkan lerro mailladun guztietatik azkeneko zigorra bezela artzen du.

Sarritan agertu dute espezialistak, alegia, legegoak azketasuna kentzen duten zigor laburraren ordezt, aal bada, "egun-multak" 'ren bidezko diruzigorrez ordain-tzearen alde garbi jarri bear lukela (10).

Bizikeraren baikuntza

Zigor-Legeak bakarrik itz egiten du baikuntzaz, 495'garren zatian meatx delituari dagokion zigor bezela.

Arrixkutasunaz eta gizartean Ber-lengoratzeaz eman-dako legeak sarritan erabili oi du baikuntza neurri be-zela. Alde batera, artu liteke diru zigorra bezela (11). Zigor au Españiko Estadu osoan epaiezko ezartzearen datorik ez degu ezagutzen.

Jendearen aurrean edo bakarrean errietan ematea

Zigor-Legediak 27'garren eta 89'garren zatietan aipa-tzen du jendearen aurreko eta bakarkako errieta. Ba-ñan gero aipatuko ditugun estadistiken arabera, azke-neko amar urte auetan, adiñeko Auzitegietan iñori epai-legez ezarri zaionik ez da ageri.

Aldiz, zigor au sarritan arkitzen da gaztegoen Epai-tegi Iagolearen erabakietan.

Azketasuna gutxitzen duten zigorrak

Legegillea, oso pixkanaka-pixkanaka, azketasuna gu-txitu lezeketen zigorrak sartzen edo bir-sartzen joan, da azketasuna kentzen zuten zigorrez ordezt.

Bai Zigor-legedia eta bai Arrixkutasunaren eta gizar-tean Ber-lengoratzearen Legeak azketasuna gutxitzen duten zigor eta neurri asko ipintzen dituzte Epailari-aren eskutan, esate baterako, erbeztetzea, kanporatzea, baztertzea, atzerritarrak nazioko lurretatik bialtzea, toki jakin batean bizitzera beartzea eta abar.

(10) J. M. Rodriguez Devesa. Derecho Penal español. Parte general, 7'garren argitalbena. Madrid 1979, 850 eta urrengo orriak.

(11) A. BERISTAIN, Medidas penales en Derecho con-temporáneo. Madrid, Reus, 1974, 123 eta urrengo orriak.

Bañan ezarri, Auzitegiak oso gutxitan ezartzen dituzte zigor auek.

Batzuetan, bakarrik edo diru-zigorrakin batera, erbesteratzeak txanda egiten du azketasuna kentzen duan zigorrakin. Adibidez aipa litezke Zigor-legediaren 252'garren (legezko ez diran zabalkundeak) et 459'garren zatiak (iraiñak).

Beste eskubideek gutxitzen dituzten zigorrak

Azketasuna kentzen duten zigorraz esan deguna bera esan liteke zigor auetzaz ere. Beste eskubideek gutxitzen dituzten zigorrak, zuzentasunaren administrakuntzari bideak ireki lezaizkioke egunetik-egunera gutxiagotan azketasuna kentzen duana erabiltzeko. Ala ta guztiz ere, zigor auek ez dira ezertarako auzitegietan. Ez gauzeztatzeak, ez eragoztaldiak, ez ortarako aukeratu diran sendakuntz zentroetan anbulatorioko tratabideari nai ta naiez menderatzea eta abar.

Itz batzuk merezi ditu gidatzeko Karnet'a kentzeak. Nere iritzian, auzitegietan sarriago ezarri bear litzake. Jaurlaritzaren Lendakaritzak (12) azkeneko estadistiken arabera, probintzietako Auzi-etxetan eta Juzgaduetan oso gutxitan ezartzen dute zigor au, datorren kuadroan agertzen danez.

PROBINTZITAKO AUZI-ETXEAK ETA JUZGADUAK

URTEAK	1969	1970	1971	1972	1973	1974	1975
Gidatzeko karneta kentzea	259	81	207	412	157	185	109

Gidatzeko baimena kentzen duten zigorraren kopururik aundiena (il batetik iru illabetera) auzoetako Juzgaduei dagokie.

(12) Jaurlaritzaren Lendakaritza. Estadistikaren Nazio-ko Eraikundea. Estadísticas Judiciales de España. Años 1974-75, Madrid, 1976, 277'garren orria.

Oro ar, Joan dan 1978'ko urtearen bitartean, epai-aginteak 22.663 gidariei gidatzeko baimena eragotzi zien, 1977'an baño geiago garbi-garbi, urte ortan, Trafikoaren Zuzendaritza Orokorrak emandako datoetan, 16.002 gidariei eragotzi bait zitzaien.

Epai-aginteak erabakitako eragozteak, 17.312 iru illabeterañoakoak izan dira; 3.308 irutik sei illabeterañoakoak; 505 sei illabetetik urtebeterañoakoak; 1.426 baimena urte batetik iru urteraño eragotzita gelditu ziran; iru urte baño geiagorako 87; bein-betirako kenduak 25.

Aldi berean gobernu-aginteak gidatzekoi 4.121 baimen kendu zituan, eta auetatik 2.860 amabost egunerako; 10 amaseitik ogeitamar egunerako; 1.175 illabetetik iru illabeteraño; eta 76 ezeztatuak.

Kontuan artuaz trafikoko lege-austeak batzuetan (Alemanian batez ere) lege-auste arrunntaren % 50 baño geiago dela, bidezkoa dirudi geiago erabiltzea eta edo gidatzeko baimena kentzeko neurria artzea.

Aste-buruko atxilotzeak

Aste-buruko atxiloketa Españiko aginduzko legedian zigor-neurria bezela bakarrik ametitzen da, eta ez zigor bezela Arrikkutasun eta Gizartean Ber-Lengortzeaz (5'garren, 4'garren, 6'garren zatiak) eta bere Araudian arautua dagoan arabera Ogeitamabi orduko iraupena izango du gutxienez. Bere egillearen eguneko lan aldeak uzte badu, larunbateko amasei ordutan asiko da eta astelenean lanera joateko ordu egokian bukatuko da, eta lanik ez badu 8'retan. Bere lanarengatik edo beste arrazoiagatik, neurri onen pean dagoanarentzat ez balitzake egoki izango aipatutako eran betetzea, Epailariak betetzeko egun eta orduak izandatuko ditu, gutxienerako orduak gordez bakarrik.

Baldintzazko kondena

Zigor-Legediak 92 eta 97 zatietan arautzen duan baldintzazko kondena, 1908'ko Martxoaren 27'ko Legearen bidez sartu zan Españiko legedian Frantzi-Beljikar arauketatik aria artuta.

Gaur-egun bi urteteraño azketasuna kentzen duan zigorra bete gabe uzten da. Kasu batzuetan, 94'garren

zatiak erabakitzen duanez, Epai-Maia baldintzazko kondena ezartzea beartua dago.

Militar Zuzentasun Legediaren arabera, baldintzazko kondena, Zigor-legedi arruntaren baño kasu gutxiagotan ezarri liteke., ba aren 245'garren zatiak ez ditu baldintzapen ortan sartzen Militar-Zuzentazunaren Legediko 194'garren zatia ezartzen zaien delituen egilleak, laguntzalleak eta izkutatzalleak.

Oraindaño aipatu ditugun zortzi aukerabideak erakusten digute, espainiar Zigor-Legediak, azketasuna kentzen ez duten zenbait zigor sail legezko agintedunen esku ipintzen dituala.

Baïñan baita ere, Zigor-Legedi berdinkatuaren eta gaur-eguneko kriminal politikaren argitan gutxiegi gertatzen direla.

6.2. Auzitegietako eta baitegietako maila

Naiz eta legegilleak, oneraño esan ditugun azketasunean betetzeko zigorrak, azketasuna kentzen dituztenen ordeko litezken edo bearrezkoak diran bezelakoak aurkeztu badizkigu ere, ala eta guztiz, eta zoritxarrez, azkeneko aukerak dira espainiar Zigor-Zuzentasunaren nagusi izaten jarraitzen dutenak. Auzitegietako eta baitegietako agintedunak ez dituzte lezaketen ainbat azketasuna kentzen ez duten zigorrak erabiltzen, naiz eta irakatsiak aukeragaritza eta geiagotan ezartzea ari eta ari eskatu.

Egunetik-egunera sarriagotan azketasuna kentzen duten zigorren gutxitzearen edo ezabatzearen alde egiten diran ikasketak kontuan euki bear dute, funtzeko oiñarri bezela, aurreko Kapituloan esan degun legezko arauketa. Bañan aurrera jarraitu bear da eta aztertu estadiztikazko dato zeatzakin, epailariak eta baitegi erakundeetako arduradunak, legeak ematen dizkien esku-bideak zenbateraño erabiltzen dituzten auzian, eta zigorra betearazten dan bitartean, azketasuna kentzen duten zigorren orde, beste kentzen ez dutenak ipintzeko.

Auzitegietan geienean azketasuna kentzen duten zigorrak ezartzen dituzte, naiz eta azken urte auetan diru zigorrak ezartzea ugaritzen joan.

Datorren kuadro onek Probintzietako Auzitegi eta Juzgaduetan azkeneko hamar urte auetan ipiñi dituzten zigorrak erakusten ditu (13).

Estadistika auetan agertzen dan bezela, 1966'an azketasuna kentzen zuten zigorrak 18.566 izan ziran; urte berean azketasuna kentzen ez zutenak 14.702 izan ziran; 1967'an 14.909 eta 15.870; 1968'an 17.592 eta 18.213; 1969'an 20.283 eta 18.969; 1970'an 23.460 eta 20.477; 1971'an 23.147 eta 18.372; 1972'an 22.487 eta 18.792; 1973'an 23.350 eta 24.169; 1974'an 24.182 eta 26.632; 1975'an 21.455 eta 23.469 azketasuna kentzen ez zutenak.

(13) Jaurlaritzaren Lendakaritza. Instituto Nacional de Estadística. Estadísticas Judiciales de España. Años 1974-75. Madrid 1976, 277'garren orriak.

PROBINTZIETAKO AUZI-ETXE ETA JUZGADUAK

<i>Zergatik</i>	1966	1967	1968	1969	1970	1971	1972	1973	1974	1975
Ezarritako zigorrak										
Eriotza	1	—	2	—	—	—	—	—	—	—
Giltzape aundia	23	15	17	20	22	21	17	24	20	25
Giltzape txikia	166	120	118	140	154	161	184	174	189	130
Baitegi aundia	809	473	597	858	1.112	1.865	1.157	1.030	1.250	768
Baitegi txikia	4.327	2.949	5.196	6.119	8.104	8.749	9.537	7.916	7.897	7.266
Atxilotze aundia	13.241	11.352	11.664	13.146	14.018	12.306	11.592	14.206	14.826	13.266
Erbestea	39	23	35	31	31	19	33	35	32	26
Karguetako gauzeztea	8	3	3	127	10	21	27	10	54	10
Multak	11.188	12.358	17.032	18.583	20.386	18.144	18.353	24.002	25.393	23.350
Gidatzeko baimen-eza	3.506	3.509	1.178	259	81	207	412	157	185	109
Ez da Agiri	—	54	11	5	17	14	150	2	4	7

Zenbaki auek, diru zigorrak geitzeko joera azketasuna kentzeko zigorrak baño ein aundiagoan dijoala adierazten du. Nabari arazi dezagun, Probintzietako Auzi-Etxe eta Juzgaduetan 1975'ko urtean zear 21.455 azketasuna kentzen zuten zigorrak ezarri zituztela, diru-zigorrak edo multak berriz 23.350.

Militar Lege-Barrutiak 1975'ko urtean zear 863 zigor ezarri zituan. Oietatik, 381 diru-zigorrak, bi erbestera-tze eta kargu publikoa aldi baterako kentze bat. Ga-ñontzekoak, au da 479 azketasun kentzalleak ziran.

Azketasun kentzalleeri eta bere ordezeko zigorre-i da-gokion informazio onen osagarri bezela, egokia deritza, azketasun kentzalle edo ez, zenbat ziran zigorrezko neurriak ezagutzea. Ondoren, 1977'ko Urtarrillaren 1'etik Abenduko 31'arte, Arrikkutasun eta Gizartean Ber-len-goratzearen eragiñaz bukatuak dauden auzi-laneri da-gozkien eta argitaratu diren azkeneko datoak ipintzen dizkizuegu (14).

Ez degu agerkari bat ere ezagutzen 2.504 epai-era-baki kondenatzalle oien mota askotariko erabakiak zeatz ematen dituenik. Ondoren ematen dizkizuegu.

(14) MEMORIA elevada al Gobierno de S.M. en la So-lemne apertura de los Tribunales el día 15 de Septiembre de 1978, Reus, Eraskiña, Estado 1.

EPAI-MAI NAGUSIKO FISKALGOA

Estado 1

Gizatre-Arrixkutasunaren Legearen eragiñez 1977'ko Urtarillaren 1'etik

JUZGADUA	Erabaki gabe 19..'ko Urtarri- laren 1'ean	Abenduko 31'eraño		asitako Auzi-Lanak.		Urtarillaren 1'etik Abenduko 31'roño bukatuak			
		Urtarri- laren 1'etik 1977'ko Abendua' ko 31'ra ño asiak		19..'ko		Erabakia			
		Guztira	barka	Kond.	Debekuaz	Iezaz	Artx	guz	
Baleares	256	485	124	124	152	24	106	122	528
Barcelona	407	1.193	1.600	113	545	105	37	542	1.342
Burgos (aul- kia Bilbon)	304	779	1.083	49	99	15	18	518	699
Koruña	52	297	349	17	21	5	7	151	527
Las Palmas	162	572	734	31	260	13	72	151	527
Madrid	470	1.724	2.194	115	581	42	29	792	1.559
Málaga	354	636	990	71	199	22	4	241	578
Sevilla	443	1.004	1.447	5	301	32	70	346	754
Valencia	234	587	821	58	149	51	39	348	645
Valladolid	27	251	278	43	72	3	—	112	230
Zaragoza	56	439	495	41	125	54	15	178	230
Nazioko Au- zi-Etxea	—	740	740	—	—	—	—	—	470
GUZTIRA	2.765	8.707	11.472	667	2.504	366	438	3.597	8.312

Bai ordea, ezagutzen ditugu gizarterako arrixkugarri diradenen motakoeri dagozkien datoak Gizarterako Ber-lengoratzeko Zentroak Abenduaren 31'n 1977'ko urte berean ziurtasun neurria ezarri zutenetik aterata. Ondoren ematen dizkizuegu (15).

(15) Baitegi Eraikundeen Zuzendaritza Orokorra. Memoria correspondiente al año 1977. Madrid, 1978, 31'garren orria.

Ezarritako Ziurtasun neurriaren eta Destinuaren Gizarterako Ber-Lengoratze-Zentruaren arabera gizarterako arrixkutsuak diradenen sailkapena

	GIZASEMEAK			EMAKUMEAK			GUZTIRA	
	<i>Neurri ezarriakin</i>	<i>Epai-aurreko baituak</i>	<i>GUZTIRA</i>	<i>Neurri ezarriakin</i>	<i>Epai-aurreko baituak</i>	<i>GUZTIRA</i>		
Ziurtasun neurriak barrukoak								
Zaintzeko Zentroa	31	32	63	3	—	3	66	14,38 %
Lanerako Zentroa	53	24	77	2	—	2	79	17,21 %
ZIURTASUN NEURRIAK BER'EZITZEKO ZENTROETAN AUENTZAT/								
Betiko prostituentzat	2	5	7	9	3	12	19	4,14 %
Homosexual arrixkutsuak (21 urtez beko)okertuak	9	8	17	—	—	—	17	3,70 %
Errebesak (inadaptados)	1	—	1	—	—	—	1	0,22 %
Zaingo ZENTROETAN								
ZIURTASUN NEURRIAK								
Buruz gutxituak	69	44	113	5	8	13	126	27,45 %
Burutik nastuak	1	2	3	2	1	3	6	1,31 %

ARRIXKUTASUN ETA GIZARTEAN BER-LENGORATZEAREN LEGEAGATIK BAITUAK

URTEAK	ABENDUAREN 31'an BARRUAN ZEUDENAK			ZENBAKI EZAUGARRIAK		
	Gizasemeak	Emakumeak	Guzira	Urte oinarria	Osoa	Lekukoa
1965 (1)	1.372	253	1.625	100	—	— %
1966	1.200	129	1.329	81,79	—296	—18,21 %
1967	996	87	1.083	66,65	—246	—18,51 %
1968	995	63	1.058	66,11	— 25	2,31 %
1969	751	53	804	49,48	—254	—24,01 %
1970	789	43	832	51,20	+ 28	+ 3,42 %
1971 (1)	1.054	76	1.130	69,54	+298	+35,82 %
1972	1.132	78	1.210	74,46	+ 80	+ 7,08 %
1973	1.015	80	1.095	67,38	—115	— 9,50 %
1974	896	86	982	60,43	—113	—10'32 %
1975 (1)	778	48	826	50,83	—156	—15,89 %
1976	698	65	763	46,95	— 63	— 7,63 %
1977 (1)	420	39	459	28,24	—304	—39 84 %

(1) Barkamen orokorra eman zan urteak (26).

(26) Baitegi Eraikundeen Zuzendaritza orokorra. MEMORIA. Madrid, 1977, 30'garren orria.

1978'ko urtean zenbakiak goitik bera dijoaz, eta e-
uneko aundiagoan gainera, ba 1978'ko urte ontako Aben-
duaren 31'n 160 gizaseme eta 11 emakume bakarrik zeu-
den barrean, au da, guzira 171, 1977'an berriz 459 ziran,
eta onek ematen digu 12,86 zenbaki ezaugarria eta aurre-
ko urtearekin 286 gutxiagoko alde osoa, eta 62,74 le-
kuzkoa.

Azketasuna kentzen dutenen ordezkoen alde epai
ariketaz kriminologiozko informazio eta azterketak ez
du irixten naiko litzaken ainbateko kalidade eta kopu-
rurik, bañan esan genezake epai arloan azketasuna ken-
tzen duten zigorraren ordezkorak ezartzea are-
agotu egin bear dela, adibidez, ugariagoan ibilliaz bal-
dintzapeko kondena.

Bestalde, legilleak geitu egin bear ditu bestelako zi-
gorrak aukeratu aal izatea, azketasuna kentzen dutena
gutxitzeko. Oker ez bagaude, gaurko Zigor-Legediak, az-
ketasuna kentzen dutenen eta kentzen ez dutenen ar-
tean, iru kasotan bakarrik eskaintzen dio Epailariari
aukera:

- atxilotze aundia edo erbestea eta 20.000'tik 200.000
pst'rañoko diru zigorra: 252'zattia.
- Atxillotze aundia edo diru-zigorra: cfr. 338bis, 340
bistik 459, 516 bis'erañok zattia 456 bis c.
- atxillotze txikia edo diru-zigorra: 573, 578, 584
zattia.

zoritarrez, epai agintedunak ezdezakete ezarri, ora-
indik, Espaiñian, gure kultur-arteke beste nazio askotan
arrunt ezartzen dienak, esate baterako:

- probaketa (Espaiñian zaintzagoari menderatzea)
- azketasunean zentzagarri lana
- prebentzio klubak
- elkartearen onerako lan edo zerbitzuak.
- Epailari eta gaizkillearen arteko ituna
- epaiezko barkamena eta abar

Gure erdi-ugarte ontan, Suezian ain urri ez diran
errietako baitegien antzekoak bear giñuzke. Gaur-egun
eunetik gora daude. Zentro txikiak, 20 edo berrogei bat
baituentzat, edo erdi-baituentzat, berak bizi diran to-
kitik gertu geratzen dirala, eta beren etxeko, adixkide,

	GIZASEMEAK			EMAKUMEAK			GUZTIRA	
	<i>Neurri ezarriakin</i>	<i>Epai-aurreko baituak</i>	GUZTIRA	<i>Neurri ezarriakin</i>	<i>Epai-aurreko baituak</i>	GUZTIRA		
BAKARTZE NEURRIAK								
GARTZU ETXEETAN								
Mozkorrak	26	27	53	—	—	—	—	53 11,54 %
Drogazaleak	9	15	24	—	1	1	—	25 5,45 %
BAITZE BEREZIKO								
ZIURTASUN NEURRIAK								
Psikopatak	4	2	6	—	—	—	6	1,31 %
Gaxotegiko tratabidea	3	—	3	—	2	2	5	1,09 %
Aurea artzeko neurriak	—	50	50	—	2	2	52	11,33 %
	208	212	420	21	18	39	459	100

Arrixkutasun eta Gizartea Ber-lengoratzeko eta bere aurreko Alper-Ontzi eta Gaiztotzallean Legean araututako zigor-neurriaren bitartez baituen kopurua gutxitzen joan da, ondoren datozten dato auek agertzen duten bezela.

arduradunak, denak lurralde berekoak, artu-eman erre-xagoak izango dituzten oietakoak.

Baitegi administrakuntzako agintedunak, izan ere, ikusi batean ematen duan baño geiago eman dezake-te emen ari geran zigor ordezeko oien alde (edo aurka).

Adibidez, naikoa moztu dezakete azketasuna ken-tzen duten zigorren iraupena:

- gaur irauten duan baitegi-leggedi berriaren sariaz jardutzean, aipatzen gifuzen irtetzeko baimenakin.
- informazio ona emanaz expedientea egitean baldintzazko azketasunerako, barkamenerako, lanaren bitartez zigorra gutxitzeko, eraikunde irekieta-ra igarotzeko, eta zigor-sariak ematerakoan eta abar.

Uste degun bezela zigor eta neurriak betetzeko Epailaria sortzen bada —Egitamuaren izendegian Zaingo-aren Epailaria deritzona— onek 76'garren zatian ematen dizkion eskubideen jabe izango da, eta zearka-bidetik zigortu askoren azketasun-ezak moztu aal izango ditu.

Nere iritziz, legeak epai-agintedunei ematen dizkien eskubideak (16) gura litzaken bide-erdian gelditzen dira, eta geroko zigor-leggedi sustantibo eta auzi-auzikoaren mendean.

7. ORAINATIK GERORAKO ARGITAPENAK

Ez da gure asmoa presondegi arrunt eta militarre-netan erabiltzen dan baitegi arauketaren balioztapen kritikoa zeaztea, ortaako daukagun baño toki geiago bearko genduke ta. Urre daukagu geroari begiraturaz, o-raingo egoeraren argitapen batzuk emango ditugu, kon-tuan bereziki eukiaz azketasuna kentzen duten zigor orde-zkoen arazoa.

(16) Baitegietako agintedunen geiegizko eskubideen aur-ka 1964'ean idatzi gaur oraindik balio du. Cfr. A. BERIS-TAIN, El Abogado del diablo, en Rev. Est. Penitenciarios (Urri-Abendua, 1964) 719'garren orria eta urrengoa.

Gaurko Gobernu Franco Generalaren diktadura birtartean nozitu bear izan genduanaren aldean oso bestelakoa da. 1977'ko Uztan Luxenburgon nere udarako ikastaldirako bildu nituen aro artako dato batzuek azaltzen dute: Guda zibilla ondoren presondegiak goseak zeudenakin buruz gain betetako zigor-kuartelak zirela; eta asko ere asko il zirela auetakotik, geroago xamurtzen joan bazan ere naiz oso pixkanaka (17).

Baitegietakoa Eraikunde benetako aldaketa, 1977'ko Abenduaren 9'an Errege-Erabakiaren bitartez, Jesús Miguel Haddad Blanco, 1978'ko Martxoaren 22'an il zutena, Zuzendari Orokor bezela izendatua izan zanetik asi zan bereziki. Il onen beraren 30'ean Carlos Maria Valdés jaunak Zuzendaritza Orokorra bere esku artu zuanetik areagotzen joan da; arrezkerotik teorian eta jardunean ajola aundiagoko obeagotzeak eraman ditu aurrera eta eramaten ari da.

Teoriazkoen artean oroi genezazke baitikbat Baitegietakoa Lege Orokorren prestamena, zenbait mintzaldi eta zientziatzko argitalbenak, eta amar bat zirkular—komunika bideetan jasoak izan ziran—, arazo larrikeria, sariak, elkarrekin lantegia eramateko sistemaren arautzea, sendagille-laguntza norbera zauritzen eta goshuelgatan, gaxotegirako presondegitik ateratzea, matxinadaren bat egitera ote dijoazlakoan giltzapetuak elkarri idatzitakoaren zensura, baikuntza eta araketak, bakarkako edo askoren arteko burruken erremedioak, adifnekoen etengabeko eziketa, eta abar.

Praktikotsuak deitzen diegun eraberritzeen artean gogoan gutxienez euki bear digunak zera dira, aurrekontuaren geitze nabarmena, arduradunek elkartzeko daukaten eskubidea, Baitegi eta Zentroko zuzendarietakoa buru izateko persona ikasiagoak izendatzea, baitegi askotako materialearen gaurkotzea (18), beste berri batzuek sortzea, auen artean agerietakoa Herrera de la Mancha'ko ziurtasun aundienekoa. Baita ere, gogorra ekarri litezke berrikuntza eta egintza zeatz batzuek, esate baterako, baitegi batzuetan ezkonduak elkarre-

(17) Baitegi-Ikasketaren aldizkariak aurrera-bide onen parte azaltzen du.

(18) Etxape batzuek, aintziñakoak ziralako berritza bearrezkoa zuten, beste batzuek presondegietakoa matxinadatan kalteak egin ziralako, kalte oiek, guzira, zortzireun milloi baño geiagoren kaltea egin zuten.

kin bakarrik egon aal izatea, jatenaren obeagotzea; gaur-egun, Ekaineko il onen batetik, eguneroko jatenaren aurre-kontua baitu bakoitzeko 94 pta'koa izango da.

Izen aundiko komentariari batzuek eta zenbait politikazko alderdiek, zentzu kritiko batekin, Espainiko baitegi-tako egoeraren berri ematen ai dira Komunika-bideetan, baita Senaduan (1978'ko Martxoaren 28'an eta Maiatzaren 11'n) eta Lege-Biltzarrean ere (1978 Ekainaren 27'an) (19).

Itz gutxitan, Espainiko Baitegien arauketak, guda zibillaren ondorengo 40 urteetako akats asko eta aundiak garaitu dituala esan genezake, bañan baditu oraindik ajolazko gaietan utsuneak, adi bidez, arduradunen aukeratze eta eskolatzeari dagokionetan, giltzape-tuaren lanari dagokionetan, erriaren iritziari dagokio-netan, Zentroen ekonomi-ornitzeari dagokionetan, ba-tez ere baitegi irekientzat eta baituen tratabiderako, gizarte-zentzamentzeari dagokionetan eta abar.

(19) Merezi du 1977'aren azken aldean Baitegi-tako Lege-Biltzarreko Batzordeak agertu zituan omdorioaren parte bat beintzat idaztea: "Espainiko baitegi geienetan, arra-ozí ezberdiñagatik, ez dira Giza-Eskubideen Iragarpeneko exijentzi gutxienekoak ere betetzea, ezta orain da gutxi eraberritutako presondegi-tako aurrez-ikusitako presonde-gi-tako Zerbitzuen araudiak".

"Oarpen, sailkapen eta tratabide arrazoizko baten uts zabaldua. Lendabizikoz eta bein eta berriz eroriak, epai-aurrekoak eta zigortuak, psikotikoak homosexualak eta dro-gazaleak, guztiak, bereizi gabe, naasian pillatuak, eta onek naaste-borrazte-zko egoerak ekartzen dituala".

"Barrukoaren bere oi zuan kanpoko eta familiko girotik etena".

"Bere beargintza baterako eskolatzeta, baituaren eta bere familiaren laguntzarako egitekoa betetzen ez duten lante-giak, baizik explota-bide batean biurtzen dirala, azken da-goan langillearekin ezberdinduaz".

"Baituen eta arduradunen arteko burruka giroko artu-emanak. Oraingo egoerak arduradunen taldeak lezekenetik gafiñez egiten dute".

"Arduradunengandik, iñoiz, baituak gogor artuak eta oñazetuak direla jakitea". Cfr. M. GARCÍA ARAN, Sistema Penitenciario español, en Doctrina Penal, n.º 3 (Buenos Aires, Uzta-iraila 1978) 675 eta urrengo orria.

Akats nabarieneztat artu bear litzake, politikazko arrazoiagatik, baitegi arazoetan. Barne Ministeritzako agintedunen esku-sartze aundia.

Iru eredu zeatzak argituko dute gobernuko esku-sartze au. 16 urtez bekoak Zamora'n eta Segobia'n baitzeaz ari gera, eta GRAPO'koak Zamora'ko presondegian, azkeneko bi auetan Orden Publiko'ko poliziak baruan zituztela.

1979 urte ontako Maiatzean 16 urtez beko 14 ume zeuden adiñekoentzat dan Zamorako presondegian, eta 16 urtez beko 12 ume adiñekoentzat dan Segobia'ko presondegian.

Gazte Zail edo arrixkutsuen tratabidearen teoriak eta praktikazko arazoaz, Hans-Jünger KERNER eta Denis SZABO Irakasleen zuzendaritzapean 1979'ko Maiatzaren 18, 19 eta 20'ean Hamburgo'n ospatu zan Nazio-arteko Mintegian agirian ipiñi zan, egungo benazko azterketen arabera, badirudila Españiko adingabekoen Auzitegi Babestalleak bere Eraikundeak aztertu eta beregituratu bearko dituala, auek 16 urtez beko guztiak artu aal ditzaten, adiñekoetan sartu bearrean. Ume auek adiñekoen baitegietan sartzeak urte askotan kentzea errexa ez dan laidoz loituak gelditzen dira.

Benaz gaitzeztu bear dira baita ere, Soria eta Zamorako zigorra betetzko adiñekoen Zentroen barruan orden Publico'ko Militarrak sartuta egotea. 1978'ko azkeneko egunak ezker, ustez E.T.A.'koak ziran eun bat gizaseme, kondenatuak eta epai-aurrekoak, Soria'n bilduak izan dira, Zamora'n berriz, berrogeitamar gizaseme GRAPO taldeko kondenatu eta epai-aurrekoak.

1978'urteko Apirillaren azken egunetan auek ziran Soria'n zenbaki zeatzak: 95 gizaseme, auetatik 69 25 urtez bekoak, ondorengo giñoan banaturik:

16'tik 17 urterañoak	0
18 urtekoak	5
19 urtekoak	15
20 urtekoak	12
21 urtekoak	11
22 urtekoak	9
23 urtekoak	8
24 urtekoak	9
GUZIRA	69

Zigorra betetzeko Zamora'ko Zentroan 40 gizaseme zeuden giltzapetuak, aetatik 17, 16'tik 25 urte bitartekoak, gañontzeko ogeitairu 25 urtetik goragokoak.

Auek eta beste akatsak, len aipatu degun Baitegi-etako Lege Orokorra ontzat ematen denean, gutxitzen joango dira biarko Baitegi Eraikundeetan. Lege onekin aurrerakada aundi bat egingo da baitegiak gizakoitze-ko, bañan kaltegarri izango litzake Zaingorako Epailariaren irudia ez zeaztea (20) —obe izango litzake zigorrak eta neurriak betetzeko Epailaria deitzea— zeintzuk diran uts-egite astun eta oso astunak mugatzea eta abar, Araudi berria ontzat ematen da bitartean egin bearrekoak dira.

Zigor eta baitegietako aministrakuntza esku batean egon bear lukenaren aldeko geranon iritzia da oraintsu, 1978'an Militar Baitegietako Eraikundeentzat eman dan legea lenbaitlen kendu egin bearko litzakela Militarrak, besteak bezelaxe erriko-semeak dira, baita azketasuna kentzen duten zigorrari dagozkionetan ere. Gai onetan besteen kideko egiteak osorik ona besterik ez du ekarriko, bai beoientzat eta bai guretzat, bai zuzentasunarentzat eta bai pakearentzat. Ala ere, ez dirudi gauzak alderdi ortatik datozenik, Españiko Lege-Biltzarraren 1978'ko Azaroaren 15'eko B.O.'ak 182'garren zenbakian argitaratzen duan Militarren Zigor-Legegiaren Egitamuek dakarrenez beintzat.

Gutxienez, ezin bestekoa dirudi komunika bideak sarbide geiago izatea Militar-Presondegietan. Esan liteke, Kafkaren gazteluak gaur-egun erriko enparantza dirudiela Militar-Presondegien aldean. Militar-presondegiak berriren batzuk azaltzen ba'dira, oietan ixilik eukitzea eziñezkoa dan zerbait gertatzen danean agirian jartzen dira, adibidez, 1978'ko Irailaren 17'an Las Palmas'ko S. Franziskoren gazteluan izan zan matxinada. Egun artan baituak su eman zioten eta Las Palmas'ko su-itzaltzalleak joan bear izan zuten.

Baitegi-Eraikundeak ez dira erriaren gizartezko, politikazko eta ekonomiazko arazoan oiartzun-kutsa bakarrik, baita arazo askoren arrazoia eta arazo oien as-

(20) Cfr. E. RUIZ VADILLO, La ejecución de las penas privativas de libertad bajo la intervención judicial, Anuario de Derecho Penal'ean (Urtarrilla-Apirilla, 1979, 31 orriak eta urrengoak.

kabidea euki lezazkena. Adibidez, gaur Españiko Estaduan dagoan arazorik zailenari bagagozkio; alegia, Euzkal-Erriko eta Catalunya'ko Estatutogintza eta abar, ikusiko degu Euzkal-Erri'ra eta Baitegietako Eraikundeeri dagokionez 1937'ko egoerara biurtzen edo (obeagotzen) bada, laño mordo aundiak dezegingo dirala.

1936'ko Euzkal-Estatuaren 8'garren zatiaren arabera, presondegietako gobernua "Euzkadiko Jaurilaritzari zegokion zerbitzuetako bat zan". Autonomi onek 1937'ko Maiatzaren 27'rañoko iraupeña izan aal zuan.

Izan ere, 1978'ko Españiko oraingo Konstituzioko 149'garren zatiko 6 zenbakiaren arabera, "Estaduak berak bakarrik dauka eskua zigor eta baitegi legedian", eta 1979'ko Gernikako aurre-asmoak dio:

Euzkal-Erriko elkarte autonomiari dagokio Estadu'ko Legedia ondorengo gai auetan betetzea:

1. Baitegietako Legedia..."

Euzkal-Agintedunei beren presondegietan Estaduko legeak betetzen usten zaienean, Euzkal-Erriari pakera-ko ate bat zabalduko da.

Asierako urrats oni beste geiagok jarraitu bear diote. Euzkal-Erriak, eta baita Españiko Estaduak ere, benaz artu bear dute legediaren eta berezko zigor praxiaren, bai auzizko eta bai baitegizkoena, azketasuna kentzen dutenen zigorren ordezkari dagozkienetan eraberritzea, orrela litekenagoa izango litzake epaigoari eta baitegoari zigor eta azketasuna kentzen dutenen neurrien ordezkari, legea auzi zuanari azketasuna kenduko ez dioten zigorrak ezartzea. Eta ez dira aaztutze-koak ainbeste espezialisten irakatsiak, auek diotenez, oizko ainbeste gaizkille baituetatik % 90 —gizarte krimen-sortzalleen ondorioak direla.

Unibersidade Katolikoko Kriminoloji Ikastolaren berrogeitamar urtebetezera zala ta, 1979'ko Maiatzeko 22'tik 25'era Lobaina-Berriari ospatu zan Nazio-arteko Elkar-Izketan parte artu zuten batzuek adierazi zutenenez, guztiz gurugarria dirudi, lege bereziz arautzen diran azketasuna kentzen duten zigor neurriak, esate baterako, Arrikkutasunaren eta Gizarterako Lengoratzearen Legea, zigor oien ordezkari, al dan geienetan, azketasuna kenduko ez duten beste batzuek ipintzea. Legedi oiek, José M.^a Rico'k Alkar-Izketa ortan zion bezala, ez dute iñoiz iritxiko gizarteabeagotzeko elbu-

rua duan sozial zuzentasuna, eta ori, elburu ori sortu zanetik zigor arazoak baño geiago gizarte arazoak erabakitzea izan zalako. Gaiñera luzaroen-luzaroan, bere teoriako prebentzio elburua gain bera joan da eta politikazko, ekonomiazko eta moral ertsakor billakatu da, legetasun sustraiaren eta bere ondorio dan personaren eskubideen babeskuntzaren kalte aundirako.

Aurre-iritzirik gabe joaten zaion persona presondegiak pentsatzea beartzen du eta orain artekoak austea edo sustraitik eraberritzea, ba gaurko zuzentasuna atzokoa baño obeagoa izan bear badu, biarko presondegiak, balinbadira, ez dute gaurkoen antzik izan bear. P.D.— Artikulo au bukatu ondoren, 1979'ko urte ontako Uztaren 24'ean, Lege-Biltzarrean, berreun eta irurogeitamalau autarki eta bi eman gabekoakin ontzat emana izan zan Baitegietako Lege Orokorra.

Egun auetan bertan, Carlos Garcia Valdes'ek, Joaquin Rodriguez Suarez eta Ricardo Zapatero Sagrado'ren laguntzarekin, 1979'ko Txosten Orokorra argitaratu zuten, eta bertan 119 orriko Sarrera interesdun baten, eta beste eun bat orritan Ariketen Laburpena eman ondoren, 1978 urteko Baitegi Erainkunderen Zuzenderitza Orokorren Oroit-Agiriari dagozkion datoak aurkezten ditu.

PRESONDEGIAK EZ DUTE ILLERRIAK IZAN BEAR (*)

GILTZAPETUA GAUZ BIURTZEA

—¿Zergatik da Españi eta beste nazioetako presondegiak ikusteko zure zaletasuna?

—Españiko legelariak aspalditik azpimarratu dute Zigor-Legediaren alderdi zentzakoia. Nere irakasleak bide ortan asi niñuten. Bide orri jarraituz presondegietan sartuak ezagutu eta lagundu nai izan diet. Orregatik presondegietara joan naiz. An, geienetan, ongi eta xalotasunez artu izan naute; batzuetan otz ere bai. Arazo eta bear galantak argi eta garbi ikusi ditut. Orain, ezin dut eta ezta nai ere, ainbeste baztertu, geienak zuzengabekerizko egituren kalteak nozitzen dituztenak, ajolabekeriz aaztu.

—¿Itz egin al dezu zigortuakin edo arduradunekin?

—Danekin itz egin det, eta danengandik ikasi ere. Bañan batez ere, giltzapetuakin izan ditut nere artu-emanak. Oietako zenbait artu-emaneri kartaz jarraitzen diogu. Oiekin alkartasun geiago naiko nuke, Frantzikoko lekaime batzuek egin duten antzeko zerbait egiñaz, illabete batzuetan presondegian sarturik, zigortuak betetzen ari diradenen bizikera ber-bera oso-osoa jarraituz. (Iñoiz, presondegiko zuzendariak bakarrik zekian beren borondatez presondegian sartu ziren aiek

(*) Solasaldi au 1973'ko Maiatzaren 440'garren zenbakian, 39-46 orrietan Hechos y Dichos deritzaion albztarian azaldu zan.

nortzuk ziran. Orrela, an zeuden beste edozein bezela tratatzen zituzten).

— ¿Zer iruditu zaizkizu baitegietako arauketak?

— Geienetan, oi ez bezelako eraikundeetan izan ezik, ez det iritzi onik atera. Suezia'ko presondegiak iruditu zaizkit akatsik gutxieneakoak. Estatu Batuetako baitegietan alde aundiak daude batzuetatik besteetara, baita estatu ber-beraren barruan ere. Joan daneko Uztaren erdi aldean egun osoa igaro nuan Dambury'ko presondegian. (an itz egin aal izan nuan, dirala naiko illabete ezkeroz giltzapean dagoan Berrigan apaiz on katolikoakin). Bai etxeak, bai kirol-zelaiak, orduak, oiturak, jatenak, lantegiak, drogazaleak beren zaletasunaren oitura galtzeko planak, arduradunak. Suezia'ko zerbitzurik onenak gogora ekarri zizkidaten. Egund gutxi barru, il beraren 31'n neoyorkitar "Las Tumbas" 'en esiak igaro nituan. Emen, Alemanian, Austrian, Beljikan, Frantzian, Bretaña Aundian, Italian, Holandan, Suezian, eta Suizan ezagutu nituan presondegiko akatsak baño aundiagoak arkitu nituan.

Presondegia geienetan, aditu ezin liteken eta gizaz beeragotik dagoan mundua da.; emen egoera lotsagarriak sortu eta irauten dute. Adibidez, 16 urte bete berriak zituan gazte arrena; zigor-gela txiki batean berrogei egunean euki zuten, inor ikusi gabe, inorkin itz egin gabe (arduradunekin izan ezik), ezer irakurri gabe, erre gabe, ez aulki ez aulkitorik esertzeko, ez berogallurik... Lotsati arena, bere gelako lagunuen aurrean egin bear izaten zituan bere eginkariak. Ango izkuntza ez zekian atzerriko langille arrena... Etxeko aita arrena, astean edo illean bein, burni-sare baten tartetik ordu erdia baño gutxiago izaten zuan bere emazte edo semearekin itz egiteko, eta beste itzketarien ondoan, eta arduradun bat burni-sareen tartean arata onea zebillela. (etorri zaion etxekoa urrutitik etorri balinbada, zuzendariaren baimenarekin, minutu batzuek geiago luzatuko zaizkio). Giltzapean dagoenak bere abogaduakin itz egiten duanean, arduradun bat zelatan egongo da; batzuetan entzun ere bai. Itz gutxitan; giltzapean dagoena, sarritan, gauza bezela erabillia izaten da, eta ez persona bezela. Baitegietako zerbitzuaz egiten diran nobelak eta filmak (adibidez, joan da udaran Urrezko Kontxa, lenengo saria, Donostiako Nazio-arte-

ko zine jaialdian "La Casa de Cristal" 'ek iritzi zuan) gertatzen denaren puskatxo bat da, eta bera lausotua ematen dute.

BER-GIZARTZEA

—Krimenen gorakada galerazteko ¿bearrezko al da zorroztasun ori?

—Giltzapean dagoenari begirune geiago zor zaio; ez da orregatik gaiztakerien kopurua geituko, bañan geituko balitzake ere, ez dezaioke begirune ori ukatu. Gaiztakeri (krimen) batzuen galerazi bearrak ez ditu ortarako bide denak onak biurtzen, ez ditu baitegi-arauketa lotsagarri eta buru-galgarriak zuritzen.

Luzaroan gizarteak onura aundiagoak jasoko ditu —baita ekonomi aldetik ere— gaizkilleak tratatzean era gizakoiagoak eraiten baditu.

Españiko baitegi-eraikunde batzuek, adibidez Liria'n (Valencia), Mirasierra-Fuencarral'en (Madrid), eta Herrera de la Mancha'n (Madrid), giltzapetuak ber-gizartzeko alegiñak egiten dituzte. Bañan beste batzuek ori aurrera eramateko bearkolitzuztekin ez daukate.

—¿Zer alderdi ber-gizartetzaille arkitu dituzu atzerrian ikusi dituzun eraikundeetan?

—Zenbait atzerriko baitegietan Españiko batzuetan baño gutxiago ber-gizartetzen duten arau eta oiturak dauzkate. Beste batzuetan, berriz, ortan aurrerratuagoak daude. Iru zeñezko iruditu zaizkit zeñenak:

- giltzapetu eta bere person-azketasunari begirunea;
- kanpoakin artu-emanik aundiena (ikustaldirako areto normalak, burni-sarerik gabe, beren etxe-koari ikustaldiak, kartak idazteko azketasuna eta zenzurarik-eza); eta
- giltzapetuaren ber-gizartetzeari ematen dioten garrantzia (eta utseti asi bear danean aurrez gizartetuaz, gaur-egungo baitegi legelariak, adibidez, Kaiser, Shüler-Springorum, Müller-Dietz eta Child 'ek esaten diguten bezela).

Sueziako eraikunde batzuetan giltzapetuak berak kontrolatzen dira, aldizka beren artean arduradun bat

aukeratuz. Orrelako zerbait gertatzen da Bretaña Aundiko, Alemaniako eta abar presondegri batzuetan. Dato ikasgarri bat bezela gogoan daukat, 1966'ko Iraila'n Londres'en krimenaz ospatu zan batzarraren bitartean, batzarkide talde bat Grendon'go presondegria ikustera joan giñan. Antxe baitegietako gaiz, beste giltzapetu talde batekin itz-azpeltu bat izan genduan. Gurekin egon ziran presondegiko arduradunak ere. Bere lagunak aukeratutako giltzapetu bat zan moderatzalle. Bere oarrak denok zintzo betetzen giñuzen. Giza-personari, baita giltzapetua dagoenean ere, itzal au eukitzea, denok euki bear genduken zerbait da.

“Azketasuna kentzen duten zigorra betetzeaz, eta azketasuna kentzen duten zentzabide eta ziurtasun neurriaz”, Alemaniko legearen Eraberriatzearen Batzordeko leendakari dan Sieverts irakasleak esan du, geroan, presondegri barruan ez dala izango zelatari soillaren arduradunik baizik eta denak pedagojiazko eginkizuna bateko dutela.

— Giza-eskubide zeatzari dagozkionetan...

— Ez bakarrik giza-eskubideeri itzala zor zaiolako, baita ere gizartetzerako gaiak direlako, geiago begiratu bear zaie lanerako, lan-sari zuzen bat izateko, sozial-ziurtasunerako, oporretako, familiakin aste-burua igarotzeko, eskubideeri...

Sexu ar-emaneri dagokionez, atzerriko presondegri batzuetan eskontzazko ikustaldiak usten dituzte. Mexiko et Ipar-Ameriketako batzuek ezkongaien ikustaldiak eta emagalduenak ere ustendituzte. Nazio guttietako eraikunde itxietan homosexualtasunak berealdiko kalteak egiten ditu batez ere gaztetan.

— Baitegietako ondorio ezezkoiak ¿zergatik ote dira?

— Ez dezaizkiogun bota arduradunei baitegietako gaitzak. Geienetan ez dute ez bear ainbateko lan-saririk ez eta prestaerarik izaten. Ala ere, oietako askok guk uzte baño tratu obeagoa ematen die. Ezkerrak eman bear geniezke. Estimua aundiagoan euki bear genduke beren langintza. Ala ez bada gizartetzearen eduki eta jo-muga oso zalantzazkoak diralako da. Aginteak, batzutan, geiegikeriz, edo obetogo esanda, dollorkeriz erabiltzen ditu eduki ori eta jo-muga oiek, gobernatzalle maillakoen politikazko eta ekonomiazko eta moralezko interesak babestuz, elkarteko interesaren kaltetan.

Ondorio ezezkoien oien erantzule nagusienak erriko-
-seme guztiok gera. Giltzapetuak zapuztu egiten ditugu.
Bearrezko eta ezerkin ordaindu ezin liteken artu-ema-
na kendu diegu. Beti irekia egon bear luken atea itxi
degu.

DENON EGITEKOA

— ¿Zer artu-eman euki bear ditu gizarteak giltza-
petuakin?

— Erriko-seme denok, bakoitza bere aldetik, eta era-
ikundeko atal bezela (Estadua, Sindikatoak, Udalak, Ki-
rol-elkarteak, Kultur-elkarteak, Unibersidadea, Eliza...) azketasuna kendu diogunok obetogo zaindu bear ditu-
gu eta (ez diruz bakarrik).

Burni-aga tartean bizi diranen laguntzarako erri-di-
rutegiak diruketa aundiagoak ematearen larri aundia
dago.

Gizarte-eskubidezko Estaduak baitegietako zerbi-
tzuak eta bere arduradunen eskolatzeari armaz orni-
tzeari baño esku zabalagoakin begiratu bear dio. Espa-
ñian zeatzki, gerorako ekonomi eta gizartezko asmoen
garatzeak, izen ori mereziko dute, Baitegietako Era-
ikundearen Zuzendaritza Orokorrarako diru kopuru
aundiagoak ematen badizkiote.

Ez Estaduak bakarrik, baita beste bazkondeak ere,
eta Elizak ere bai, arazo auetaz geiago arduratu eta
kezkatu bear luteke. Beren ixiltasuna gaizpide gerta
liteke. Sermoi gutxik eta Gotzai-Idazki gutxik S. Ma-
teo'ren Ebanjelioko 25'garren zatia giltzapetuari buruz
esaten duena adierazten dute. Interes eta informazio
aundiagoa bearretsi bear da presondegietako ghettoa'ri
buruz. Polizi-komisarietan gertatzen danari buruz, adi-
bidez, ba gaur-egun, Zuzentasuneko Ministeritzako Le-
tradu batek, Información Jurídica'n idazten duenez,
"auzizko oñazeketa kendu dan ezkeroztik, orixe bera
gero eta geiago, zabalean eta bizitasunean aunditzen
dijoa polizien (kriminal edo politika) eta militarren
oñazeketagatik.

Eliza ezin diteke lasai gelditu baituei buruz agiriko
informazio aundiagoa lortzearekin. Aurrera jarraitu
bear du, zerbait geiago, al duana egin bear du, bere

eta beren aideen arazoak erabakitzeko. Giltzapetua familiko aita danean, bere emazteak eta seme alabak ere nozitzen dute kondena. Bere bearrei laguntzeko eske batzuk elizetan egitea ondo etorriko litzake, eta baita Charles Peguyren esan ura gogoratzea ere, "Euska luzatzen ez duana ez da Kristaua".

Egoki egongo litzake, agian, erlijiosoen ordena berri bat (edo sekularrena) eraikitzea kondenuatuari begiratzeko edo azketzeko (itz onek zentzu asko ditu). Buenos Aires'en 1956'garren urtean Presondegien Kristau Laguntzaren Sekretaritzak eraiki zan.

Lantegi-gizonak ba-dezake eta lagundu egin bear dute presondegi barruan bear bezelako lan-sariakin ordaindutako lana izan diezaten, naiz eta kanpoan lan egingo lutekenak sobre egon, zerbaitetan jardutzea bearrezkoagoa bait dute barruan daudenak azke dabiltenak baño. Lana bearrezkoagoa gertatzen zaie...baita geiegizko egonean ez egoteagatik ere.

Ezer egitekorik gabe egoteak arazo asko sortzen ditu baitegietan. Bañan daukaten geiegizko beta ortaz ondo baliatu ezker bir-gizartetzeko asko lagundu dezake. Liburu edo aldizkariak bialtzea, musikari edo antzerkilarien ikustaldiak, filmak ematea eta ondorengo eztabaidak eta abar...beta orri protxua ateratzea errexten dute. Erriko diran liburutegiak liburuak uztea eta baita aldi baterako ere erreztu egin bear lioteke.

— *Zure plan ori ames bat iruditzen zait.*

— Ba liteke. Bañan esparru ontan utopiazko elburua jartzea ohea da, pragmatismo trakets bati gidatzen uztea baño. Eziñari, zabaltzen dio etorkizuna Kondairak eta ontzat ematen du oiñordezkoz jaso degunari lenean iraunazteko baño, zerbait berri eta ohea sortzeko jaio generala.

Elizak eta beste eta beste Eraikunde kritikariak (unibersidadea bezela) objetiboki eta zuurtasunez bai, bañan baita kemenki ere, baitegietako arauketaren obegotze eginkor eta sustraizkoak bearretsi bear dituzte. Bereziki azketasuna kentzen duten zigorrak bete-araztekoan. Auek gaurkotzen ez badira, ezabatu egin bear luteke.

— *¿Bai al da giltzapean egon dana gizartetzeke emana dagoen bazkunik?*

— Badira giltzapean egon danari gizartetzea errezteko gobernuko antolamenduak, baiñan ez dira naikokak. Giltzapetua kalera irtetzen danean eragozpen bereziak arkitzen ditu, eta bearrezkoa du gainditzeko askoren laguntza. Zuzenbide sor zaizkion bere urkoaren itzematea eta arriskua eskatzen ditu.

Giltzapetik irtetzean, (geienetan diru gutxikin irtetzen da) diru-laguntza bear du, abegi biotzkor bat bear du, —nun dira bere lagun zaarrak— lanpostu bat eta beste milla gauza.

Beste nazioetan, zenbait antolamentu pribatuk (erlijiozko edo erlijiozkoez direnak) beregain artzen dute azketu bakoitzarentzat, irtetzen danekoxetik, adixkidekor artuko duan persona edo famili bat arkitzea. Persona orrek laguntzen dio bere bear askotan (antolamentu orren ardura eta laguntzarekin).

Ezagutzen ditut Unibersidadeko iru Irakasle eta auzi-gizon bat presondegian egondakoren bat aldizka beren zaipean eukitzen dutenak. Lau lagun auek, beren laguntz eta zaipean egondiran bitartean giltzapean egondako oiek, noizik eta bein naiko buruauste eta aundi xamarrek ekartzen dizkietela esaten didate, bein eta berriz; bañan luzera, beren bizitza zentzuz eta atsegiñez betetzen dietela.

— *Erio-zigorren gaian sartu gabe, ¿ez al zaizu iruditzen baitegietako sistema berak eriotz azia daramakila?*

— Egia, eta emendik datoz presondegietako bere burua erailtze edo erailtzeko aalegiñaren euneko aundia.

Kriminologoak diotenez, —eta Rodriguez Devesa datorkit orain gogora— oso kaltegarria gertatzen da 14 edo 15 urterako azketasuna kentzea. Orrenbeste denboran personen arteko egitako artu-emanen ezak giltzapetuaren psikolojia asaldatu eta puskatu egiten du. R. Dell'Andro'k dion bezela: "Gizaseme bat besteekin taldeak osatu dituana, eta orri eskerrak gizon bezela jardun aal izan duna, oietatik urrutiratu ezker, ez du gizon bizitzeko indarrik arkitzen; izan ere, ¿biziko al

litzake guretako inor bere ondoan maitasunez lanerako indarra izaten lagunduko liokenik ez baleuka?"

Gure kultur-munduan geiegizko prezioa ordaintzen du gizarteak bere ziurtasunagatik. Persona gutxiagoari azketasuna kendu bear litzaioke, naiz eta orregatik arriskutsuak diran bakarren batzuegatik arrixku aundiagoak etorri.

— *¿Epai-aurreko giltzapetzeaz ari al zera?*

— Ez. Epaitutako delituari azketasun-eza zigor bezela ezartzen zaien zigorragatik ari naiz.

Epai-aurreko giltzapetzeak kritika zorrotzagoa merezi du, latin-erri zenbaitetan bearrik gabe ezartzen baita batzuetan. Orrelakoetan, aginteak, obetogo, esan, aalmenak gauzen izakera puskatzen baitu. Epai-aurreko giltzapea nozituondoren errugabe gertatzen diran personarentzat, zuzenbidez, kalte-ordain bat moldatu bear litzake. Gutxienez nabarmenenak beintzat. Ikasbide ederra eskaintzen digu 1970'ko Uztaren 17'ko lege prantsezak). Personen eskubide denatan gero eta geiago Estadua eskua sartzen dijoan ezkeroz, kontrolak ere, geitu eta sendotu egin bear dira.

AALMENA INDARKERIAZKO EGOERA BEZELA

— *Joan dan urtean naiko "naasketa-aldi" izan da baitegietan. ¿Zer derizkiozu matxinadari buruz?*

— Matxinada auek sustrai Etiolojiozko oso korapillotsu eta askotarikoak dituzte. Edo presondegiko jaten delatena, askotan arrazoi aundirik gabe, edo gezurrezko susmur bat delatena. Baiña beste sakonagoak ere, badira. Adibidez, giltzapetua bere eskubidez gutxienekoaz jabetzen joan dalatena, eta indarkeriazko egoera orri arpegi ematea ausartzen da eta abar.

Giza-eskubideen aurrera bide ezartzalleak, orain delatena gizaldi bat ez-ezagunak ziran eta izan ere ez ziran egokitasunak eskaintzen dizkio gaur giltzapetueri (eta gaizkilleeri). Kondairan eta Kondaira barruan dijoaz eskubide oiek egiten: etengabe dijoaz aurrera eta azten (bere izatean eta gure ezagueran). Presondegia giltzapetuen eskubide berrien aurrerapenakin berandu

egokitzen dira. Eta atzerapen orrek bidezkoak diran matxinadak sortzen ditu.

Beste arrazoi bat izan liteke ezarrita dagoen indarkeri eta indarkeri iraultzallearen arteko dialektikazko burruka. Aalmenak erabat usteldu egiten duala esan oida. Baitegi batzuetan aalmena indarkerizko egoera bezela geiegi nabarmentzen da (eta batzuetan eskubiderik gabe eta zerbitzu egiteko asmorik gabe). Orrelako egoerak, nai eta nai ez, geiegikeriak eta bidegabekeriak gutxitzeko asmoarekin indarkerizko ekintzak pizten ditu. Ez bada lortzen, iraultz indartsuago bat... matxinada bat sortzen da.

Giza-eraikunde guztieri atxikiak dauden bidegaberi-etatik presondegiak ezin litezke libratu, eta oietan berezkoa dan protesta egiteko edo beren eskubideen alde egiteko bideen urritasunak oraindik areagoak egiten ditu ortik datozten arazoak. Orregatik, egocera oiek leuntzeko egin litezken alegin guztiak, adibidez, elkarizketak geiagotzea, erriko-semeen eta sozial-komunikabidean esku-artze aundiagoa eta abar, burruka oieri aurrea artu eta galerazteko balio aundikoa izan litezke. Esparru ontan (Alemanian, adibidez) nazio batzuetako egunerokoak eta telebistak oso laguntza edera ematen ari dira.

— *Giza-burrukatasuna baitegi itxietan sartuta dagoalako erretxinduta egotea, ¿ez ote da, baita ere, matxinada oien zabalkundearen arrazoa?*

— Naiz eta burrukatasunari buruz oso gauza gutxi jakin, esan dezakegu baitegietako gobernu, neurri baten barruan ari danean, agian, giltzapetuaren burrukarako joera gutxitu lezakela; bañan, geienetan erretxindu egiten du.

Iñoizkoren batean, Estadu Batuetako eraikunde batzuek, egoera jakin batzuetan, geiegizko begiramena agertzen diote giltzapetueri, eta orrek neurritz gañeko matxinadak ekartzen ditu.

Geienean presondegi baten sartzea personaren duintasuna galtzea esan nai du. Europa-erdiguneko nazioak sozial atzerapen au gaingiditzen ari dira. Baitegi batzuetan, neurritz-goiko ziurtasunaren gobernu zaarra xamurtzen joan zanean, iskanbilla latzak sortu ziran. Istillu oiek ordea, aurrerapen bezela artu litezke, orrek,

eskubideak kenduz, presondegia illerri biurtzen zituan garai ura joan dala adierazten baitu.

Onen antzeko arrazoiagatik gaiztakeria aztea, iñoiz-koetan, aurrerapenaren aztarna bezela artzen dut. Oso gaiztakeri gutxi dagoen tokietan izukeri aundia dagoanaren susmoa izan liteke. (Hitler'en garaiko Alemanian oraingoan baño gaizkille gutxiago zegoen). Lege-auste asko edo gutxi egoteak adierazi lezake erriko-semeen eskubideeri begirune asko edo gutxi dagoela. "Adierazi lezake" diot eta ez "adierazten du", batzuetan azketasun aundirik gabe gaiztakeri asko egon bait litezke.

ZIGORRAK EZ DIRA NAIKO

— *¿Presondegia al da gaiztakeriarentzat Zigor-Lege-diaren erantzun bakarra?*

Gaiztakeriarentzat ez da presondegia Zigor-Legediak daukan erantzun bakarra ezta nagusia ere. Gaur azketasuna kentzen duten zigorrak ez dira aintzakotzat artzen. Gaur ausardiz asmatu bear dira zigor berriak eta berriztaleak; Itxitako presondegia geienak izkutatuko balira, gaurko garaiari dagokion maillan egongo gifake.

Ontan ere, Kondaira aurreraka dijoa, naiz geldi eta tarteka atzerakada batzuekin. Leendabiziko gizarte artan gorputzeko zigorrak ziran nagusi (eriozigorra, mozketak...). Asi-masiko aurrarapena ezarri zuan talion lege arrek begiari begia, ortzari ortza— orrela beintzat, zerbait bada ere, autsia izan da legea ber-eraikitzea mugatzen bait du. Txampon zalekerizko oroak saiatzen dira kondenatuak (galeratan, katigu-lanak) elkarteari zerbait ekarri dezaion. Zerbait geixeago garatutako gizarteetan, besterik gabe, gaizkilleak presondegietan banakatzen dituzte; orrela gaizgifien meatxuetatik ziur egon ditezen. Zigor-saria eltzen dijoan bezela, beste elburu askotariko eta eztabaidatuen billa dabil, bañan beti baikorrak eta gizakoiak, eta gaiztakeriaren aurrean ondo pentsatutako sustraizko erantzuna eskatzen diguna.

Gaur egun zigorrak ez dira naiko, ezta ere zigorrak ziurtasun neurriakin. bearrezkoak dira baita ere zentza-neurriak eta babes-neurriak.

— *Bañan, “zentza neurriaz” eta “babes neurriaz” mintzatzea ¿ez al da itz utsen arazoa izango? Benetan aldatuko aldu “zigor-erantzunaren” edukia?*

Bai, bere edukia eta elburua aldatzen ditu. Ziurtasun neurriak (zaintze eratsua, erbestea, baztertzea) elkartea pakean egon dedin arrixkutsuak urrutiratzeko beste ezertarako ez dira. Ziurtasun eta zentza neurriak berriz, (psikolojiako tratabideak, sendakintzazkoak, psikiatriazkoak, taldeko sendabideak, oiturak kentzeko teknikak, probation, case work...) elburu berezko eta bakarra bezela kondenatuaren ber-gizartetzea nai luteke, eta gaiñera, bigarren, egitako ziurtasun eta aurre-rapen bide bezela.

Babes neurriak, gaztediaren Zigor-Legediak ain bere dituanak (gazteeridagozkienak, ez adin gabekoei)— esan genezake ziurtasun neurriak direla, bañan alderantzia: gazteak gizartean izango dituan arrixkuetatik zaitu nai ditu. Eredua Zigor-Legediko 446 zatiak eskaintzen digu. Zati orretan, prostituzioan edo lizunkerian galtzeko egoeran dagoen adin-gabearen babestallea nola izendatu bear dan esaten digu. Babestalle onek galtzeko zorian dagoen adingabekoa arrixku ortatik kentzen saiatuko da eta bide onera ekartzen alegindu.

— *¿Zer aldaketa sartu bearuko lirake zigor arlo ontan?*

— Egoki egongo litzake, zalantzik gabe, azketasuna kentzen duten meatxuzko, ezartzezko, eta betetzezko aroak geiago bereiztea. Lenengoak, zigorra ezarriko zaiola eta bildurtuz okerra egitetik aldendu nai du (pedagoji-oarpenezko elburua). Bigarrenengan, zigorraren elburua neurri askotarikoa da, batetik, aurea artzeaz gaiñera berriz erori ez dedin, bestetik, gaizkiaren kalteak nozitu dituzteneri ordain bat eman nai zaie, eta gaizkilleari bere pasatako portaeraren gaiztoa arpegira bota (emen elburu ordaingarria da nagusi; ez bende-karia). Irugarrenean, aldiz, neurri-batekoa da edo izan bear du: azketasuna kentzen duan zigorrak elburu bat bakarrik lortu nai du; kondenatua ber-gizartetzea (ber-ezitzalle elburua).

Gaur-egungo legeak zigor eta neurriak betetzeari dagokionez (adibidez Alemanian) arlo ontan aintzat artzeko araudiak dituzte.

Baita Legedian eta praxian ere zentza-bide eta ziurtasun neurriak geiago sartu bearke lirake, batez ere azketasuna kentzen ez duten neurriak.

— *¿Teorian zigor sariaren aldaketa onek ba aldu Españan ondorio jarraigarriak?*

Bai, adibidez, arrixkutasunari eta gizartean berlengoratzeari buruz emandako lege berria, zerbait beintzat (zerbait bakarrik) teori berri oieri esker sortu da.

— *Lege orrek ¿aurrerapen aundia esan nai aldu?*

Zentzabidezko eta ziurtasunezko neurri berriak sartzten ditu eta orrek legediaren aurrerapena esan naitu. Bañan gizarte-ukatzalleeri gizarte-aurkalarieri aibat edo geiagoan ezartzen dizkie. Zigor-sari oiek gizarte arrixkutsuentzat bakarrik dira arrazoizko. Bañan, legeak egiten duan bezela (deliturik egin ez duten) gizarte-ukatzalleeri luzatzea legezko ziurtasuna austen du.

Gaur-Egungo mundu askotariko onen eta Legezko sozial Estadu onen pentsakerak, gizon-neurribateko eta gizon-gizarte ukatzallearen konzeptua parekatzea eta berplanteatzea eskatzen du. Oni dagokionez bi persona talde banandu bear dira.

1'go.— Elkartetik kanpora ipintzen diran personak, baztertuak, gutxiago balio dutenak, iñork beartu gabe aldentzen direnak...

2'garren.— Gizarteak beartuta (ez elkarteak) tokiz aldatuak, baztertuak, arbuatuak.

Arriskutasun eta Gizartean Ber-Lengoratzeari buruzko Legearen oiñarrizko konzeptuak zuzendu bear larria duten naspil-akatsa daukate. Delitu-aurreko eta delitu-ondorengo neurriak, delitu-aurreko eta delitu-ondorengo arrixkutasuna, beren berezko berdineztasunagatik, zero banandu bear dira. Sozial arrixkutasunaren zentzu bateko itza bi zentzukoa da. Gaiñera, Españan zuzentasunari dagokion izkuntzan *rehabilitacion* itzak bere-berea dun esan naia dauka (cfr. Zigor-Legediaren 1189'garren zatia), ingles itzaren *rehabilitation* esan naitzen zero ez berdiña. Orain aipatzen ari geran legeak ez dabilki itz au dagokion bezela.

— *¿Delitua zigortu edo delituari aurea artzea dan egokiena jakitean dago, agian, arazoa?*

— Zalantzik gabe, dilema garrantzi aundiko au arreta bereziz aurea artzeari begiratzuz erabaki bear da. Bañan, ez da zuzen jokatzea eta kaltegarria da bere mugaz arunztik Zigor Legedia luzatzea. Delitu aurreko neurriak administrakuntzako edo polizi arlokoak dira edo izan bear dute, eta ez zigor-leggedikoak. Iñork ez ditu elbiak kañonazoka iltzen.

Zentzatzeko eta ziurtasunaren Arrixkutasun eta Ber-Lengoratzeari buruz emandako Legean arautuak gogorregiak dira iñungo deliturik egin ez duten baztertueri ezartzeko. Neurri auen orbañak, persona baten gutxi-eneko eskubideetan duan zer ikusiak, gizarte-ukatzetasun soilla edo arrixkutasunaren gutxi gora-berako eza-guera baño oiñarri funts geiagokoa bear du.

— *¿Eta delitu-ondorengo zentza eta ziurtasun neurriak?*

— Bai, ondo dago gaizkilleari zentza eta ziurtasun neurriak ezartzea. Gaur, Zigor-Legediak bere gizartezko ber-ezitzeko lagungarri oien bearra dauka. Bañan, neurri batzuek arazo latzak dauzkate bidezkoak direla adierazteko. Jo dezagun gaizkille bat, bere sexu-geiegi-etarako joeragatik arrixkutsua dela, ¿irendu al liteke espezialistak ondo egongo litzakela uste baluteke, edo gaizkilleak berak baietza emango baluke? Eta erruduntasuna utskerri bat balitzake, bañan bere arrixkutasuna aundia, ¿zigorra barkatu egingo al zaio?

PERSONA-ARTEKO ARTU-EMANAK

— *Zigorraren barkatzeak, ¿ez al du berekin zuzentasunaren eta biktimaren gutxietsitzea?*

— Bai, gerta liteke, kaso batzuetan, zuzentasunaren eta delitua nozitu bear izan duanaren gutxietsitzea berekin izatea. Bañan beste batzuetan oso bestera. Auzi-aginteak emandako barkamena, neurri batzuen barruan, (Batikano Estaduko Zigor-Legedian bezela), balore oso onak dauzka elkar-arteko bizitza tajutzeko. Kupida-

rik gabeko zuzentasuna zuzentasun-eza da (naiz eta oraindik-orain bestela itz egin badu ere Estadu Batutako leendakariak). Ederra D. Quijoten esan ura "epailari zorrotzak ez du epailari errukiorrak baño izen obeagoa".

Legegilleak eta epailariak —zuk bururatu dezun bezala— aintzat artu bear dituzte biktima dan personaren eskubideak. Onek sarritan bera naigabetu zuenari barkatzeko eskubidea dauka. Orrelakoetan, barkapenak ez du esan nai biktimaren gutxietsitzea.

— *Gaizkille-biktimaren arteko artu-emanan zizkutuko delituetan bakarrik al da aintzat artzekoa?*

— Gaur-eguneko zigor-legelariak —italiar positibolariak baño oraindik geiago— gaizkillea eta biktima arteko artu-emanan delitu guztietan areagotu nai dute, eta au arrazoi askorengatik. Oietako bat delituaren geiegizko Konzeptu Kant'iarra gainditzeko. Delitu asko, guzien onarekin artu-eman zengabeko baten austea baño, zearkako, gizartezko, persona zeatzakin dan artu-emanan austeari atxikiagoa dago.

Eta zigor-saria, gaitz bat beste gaitz baten ordeztartzea baño (malum passionis propter malum actionis), zuzenbidezko ordena bere onera ekartzen baño geiago saiatu bear du delituagatik bakoitz-zeatzaren artean autsi dan artu-emanan leengo onera ekartzen.

Inglaterra'n, Alemania'n, Estadu Batuetan eta beste nazio batzuetan, epailariak gaizkille gazteeri zigor-saria bezela beren biktimen edo auen antzeko personei dagozkien bearkizunak ezartzen dizkiete. Gazte batek, adibidez, agure bat gaizki ibilli badu, epailariak orrelakoa lau aste burutan agureen zaindetze batera ikustaldiak egitera, aiekin itz egitera, opariren bat egitera beartzen du. Etxeren batean kalteak egin balinbaditu, kaite oiek kentzen laguntzera beartzen ditu. Delituren bat motordun ibiltallu batekin arinkeriz egin balinbadu, bere ikastol edo unibersidadetik irtetzeko orduetan trafikoa zaintzea ezartzen dio.

Gaizkilleari on egiten dio bere lanaren irabaziakin, alakoari edo onelakoari egin zion kaltea, zerbaitetan bederen, ordaintzen duala ikusteak. Giltzapetua presondegitik errudun danaren lotsa eta kezka gutxigoarekin aterako da, orrelako edo alako izena eta deitura zuan

personari egin zion kaltea zerbaitetan bada ere, ordaindu duala balinbadaki. Batzuetan orrela zigorra zeazteari esker, lenago etzegoan persona-arteko artu-eman oso baikorra sortu diteke.

Gai auek aztertzeko, aurtengo Iraillaren 2'tik 6'raño, Biktimologiaz Nazio-arteko 1'ego Simposium bat ospatuko da Jerusalem'en.

— *Zuk aolkatzen dituzun baitegietako ikustaldiak, ¿ez al dute sortuko azke bizi diranetan arroxkokeriren bat?*

Leikena da, bañan, geienetan, giltzapean daudenak ikustera joateak azke bizi diraneri ere on egiten die. Esate baterako, giltzapean dauden oitako batzuek, e-pai-utsegietagatik, errurik gabe daudela barruan azalduko die; guk gaizkilleaz, delituaz eta zuzentasunaz dauzkagun irizpideak sarritan oker daudela agertuko diote.

EPAILARIA EZ DA JAUNGOIKOAREN ORDEZKARIA

— *¿Zertan dago gaizkilleari buruz oker dagoan irizpidea?*

— Irizpidearen okerra, gaizkillea, ez bakarrik epai legearen aldetik baita moralaren aldetik ere, gizon gaiztotzat eukitzean dago. Pentsakera onek delitua eta pekatua berdintzat jotzen ditu. Bañan, Estadu Batuetako Lendakaritzaren Batzordeko Informeak dionez ez da orrela ("The Challenge of Crime in a free Society"), "gaizkintasuna ez da bakoitzaren okertzearen ekintz bat, baizik eta egiaz, eragin askotarikoaren ondorio dan portatzearen era bat baño"... Gaizkillea lokarriaren aririk aulena da: beragan agertzen da gizartearen porrot eta elkartezko baloreen gain bera. Batez ere, soziologiazko beste amaika suztraien ondorio bezela ateratzen dira gaiñera delituak. Familiako eziketa, ikastol eta unibersidadeko eraikundeak, mixeria, komunika-bideak, gizartezko berdineztasun osarregarriak... itz batean, konsumoko gizarte onen oiñarrizko eraikundeak erriko-semeak lotu eta delitura bultzatzen ditu. Itxuraz bere

azketasuna errespetatzen dute: egiaz eta benetan ordea, ezerreztu edo utsaren urrengo biurtzen dute.

Arrazoiakin diote soziologilari batzuek, gaizkillea ber-ezitzea ainbat eta larriagoa dela elkarte bir-ezitzea.

— *Gutziz soziologiazkoa dan ikuspegi ontatik Zuzentasunaren balioa asko ere asko gutxitzen da.*

— Bai: Letra aundiarekin idazten dan eta teorikari batzuek ulertzen zuten Zuzentasun ura, zorionez, indarra galtzen ari da. Egiaz, giza-zuzentasuna ez da eta ez du izan bear Jainkozko Zuzentasunaren erreñua. Biak beren sustraietan eta elburuetan ezberdiñak dira. Ala ere, epailari eta auzi-mai batzuek Jainkoaren izenean epaigintzan jarduten dutela uste dute. Epai-aretoak Españian eta beste nazio batzuetan erlikiozko-jainkozko ezaugarriren bat buru bezela eukitzen dute. Estadu Batuetako auzitegietan au irakurtzen da: “Gure ustea daukagun Jaungoikoa”. Erlijiozko aipamen auek tokiz kanpora daude, eta zenbait arrazoiegatik. Epailaria elkar-tearen ordezkoa da eta ez Jaungoikoarena. Naikoa da aldi guztietako oker egindako epaikuntzak gogora ekartzeta; baita gaur ere, eta baita erio-zigorak ezartzekoan ere.

Jesukristo eta Kondairaren izen aundiko gizonak ere giltzapean egon eta kondenatuak izan dira.

Giza-zuzentasunaren autonomia, bere erlatibotasun eta “alderdikeri” edo “klasekeria, garbi nabarmentzen da giltzapetutako geienak nundik datozten eta nolakoak diran ikusita. “Lepoko zuridun” kriminalak, negozio “errexen aita jaunak” (droga eta prostituzioaren nazio-arteko merkataritza bezela), milloietako estafalari aundiak, gutxitan sartzen dituzte presondegian. Giza-zuzentasunak batez ere sartu bear lukenetan agertu bat ere ez du egiten.

POLITIKAZKO DELITUA

— *Giza-zuzentasuna orrela artua, ¿kemen aundiagoakin arpegi eman bear al lioke delituari eta politikazko giltzapetuari?*

— Zigor-legelari guztiak edo geienak jarduten dute politikazko delituaz, naiz eta definizio eta balioztapen oso bestelangoakin. Ez dago danak ontzat emandako konzepturik. Orregatik arlo ontan illuntasun eta naste aundiak arkitzen ditugu. Kondairaren aro batzuetan arrunta baño astunagotzat jotzen dute, beste aro batzutan berriz ariñagotzat. Zail egiten da bere zigor-saria delitu arrunten zigor saria baño “kopuru” aundiagoan edo txikiagoan izan bear duan erabakitzea. Politikazko gaizkillea zigortu bear da, bañan ez gaizkille arrunta bezela. Orain-oraingo Latindar-Ameriketako Zigor-Lege-di eredu en egilleak “berezitasun” au aintzat artzen dute, politikazko delitua birerortzea egiten dutenen egin-tzetatik kentzen duten ezker (70'garren zatia 1 zenb.).

Politikazko krimena oso zuzenetik baldintzatua dago agintea daukatenen joera ireki edo itxiagatik. Gobernuari edo Konstituzioari buruz iritzia ematea delituetan sartzen dutenak Zigor-Legediaren izena ere lotsagarri biurtzen dute (zuzentasunaren arma delako), eta politikazko arma bat geiago bezela erabiltzen (abusatzen) dute. Zoritxarrez, diktadurazko Estaduak politikazko aurka jartzea politikazko gaiztakeritzat artzen dute, ori ongarrria eta bearrezko dela aaztuaz.

Jakiñekoa dan bezela, gizarteak ezarritako gobernua sustraitik aldatu nai badu, legezko bideak bearrezkoak ditu. Beste era batean esan da, aurka daudenen elkar-tea gobernua baño onartuagoa izatea lortzen badu, atea irekia euki bear du bere orde z jartzeko, eta konstituzioaren legeak aldatzeko.

— *Bañan, ideolojiari buruz askotarikoa dan gizarte baten, izer da terrorismoa ez den politikazko delitua?*

Politikazko delitu “soilla” askotariko gizarte batean ametitzen dut leikena dela. Gobernuak, Antolamenak, Estaduaren Konstituzioak legezkoak ez diran erasoak jasan litzazke, terroismoa iritxi gabe, besteen onagatik aurka daudenen aldetik.

Politikazko krimenen eta terrorismoaren arteko ar-tu-eman galderakizunez betea dago. Zailla bada poli-tikazko delitua mugatu eta balioztatzea, ez da errega-go (agian zaillagoa) terrorismoa mugatu eta baliozta-tzea. Sirakusan, datorren Ekainaren (4'tik 16'ra), eta Kriminoloji azko Zientzien Nazio-Arteko Instituto Nagu-

siak antolatua, "Terrorismoa eta politikazko Krimenak" gaiaz, nazio arteko simposio bat ospatuko da. Nazio Batuak, Terrorismoa eta berari erasateko bidez egin ditun azterketak eta sesioetan lortu duan baño argitasun geiago irixten aleginduko da. Gobernu-arte-ko antolamendu aundiak, naiz eta denen gogokoa izan, ez da iritxi erabateko ondorio batera.

Gobernu askok agintea iritxi edo aginteari eutsi diote zillegi ez diran indarkerizko eta izutzeko bideetatik, eta orregatik ez da legezkoa dan edo ez eztabaidatu.

Terrorista batek baño geiagok gogora ditzazke Antigonak Ismene'ri esaten zizkion itzak; "Zu ontzat mundu batek ematen zaitu; ni beste batek". Sofokles'en trajedi au irakurtzean, kontzientziatzko eragozpen jartzailleak gogora etortzen zaizkit beti eta lotsa gorritan jartzen naiz oietako askori egin dizkiogun gogorkeriagatik.

— *¿Zer nolako epia-maiak epaitzen dituzte politikazko gaizkilleak?*

— Gure kultur mundua epai-aginte batekoaren alde dago. Españian ere bai, Lege Organikoaren 31 eta 32 zatien arabera. Lege onek bi epai-aginte berezi bakarrik usten ditu: militarrena eta eliztarrena. Nerekiko, de lege ferenda, militarrena bakarrik ametitzen det (bere esparrua eta edukia asko murriztuz). Ona izango litzake epai-aginte bereziak lenbaitlen izkutatzea, gaurko egoera luzatzea ez litzaketako bidezkoa izango, eta Lege Organikoak erabaki duana betetzen ez dualako.

Ordena Publikoaren Epai-Maiak teoriz politikazko bezela artu litezken delitu asko epaitzen ditu. Berez, epai-mai arrunt bat da, bañan egintzetan ez, bere atalak (epai-legedi karrerakoak) nai danez eskuz izendatzen direlado.

— *¿Politikazko delituaren aurkako ardurazko zigor-sariz mintza al liteke?*

— Asi-masiko legezko teknikak "erabaki"ori ukatu egiten du. Eta aginte beteerailea (epai-legelari agintarien omen zan biguinkeriagatik) eztabaidatzen du, berari kalte egiten diotelako politikazko portaera oiek

beren "antzeko" delituari baño ardurazko zigor-sari aundiagoa ezartzen balinbadie.

Ordena Publikako legeak gobernuko agintarieri diru zigorraren ordezeko bezela, larogeitamar egunerañoko azketasuna kentzen duen zigorra ezartzeko eskubidea ematen die. Diru-zigor ori milloi bat pesetarañokoa izan liteke. Orrelako zigorrak Kriminal epai-aginteko epailariak ezarriak ez badira, geiegizkoak gertatzen dira.

Legegilleak ez du aaztu bear neurritz gaiñeko zigor aztunak, lege-austeak ugaritzen dituala. Gogoan jaso bear ditu epailariari, eta ondo baderizkiozue onekin bukatuko det, Rabindranath Tagore'k ematen dizkion aolkuak:

"Nai dituzunak esan beregatik, bañan nik zuk baño obetogo dakizkit nere umearen utsegiteak. Nik ez det maite ona delako, nere semea delako baño... Eta zuk nola jakin dezakezu nolako altxorra den bera, zuk bere merezimentuak bere utsegiteakin pisatu naiez zabiltzan orrek? Nik zigortu bear dudanean, iñoiz baño nereagoa da. Negar egin arazten diodanean, nere biotzak ere negar dagi berarekin. Nik bakarrik daukat salatzeke eta zigortzeke eskubidea, maite duanak bakarrik zigortu bait dezake".

ERLIJIO ASKETZA PRESONDEGIAN ETA PRESONDEGITIK

*Barrengo ordezesaren aurrean
ordenaren aurreko alegin lasai bateri dagokio
"orden Publicoaren" itxurak artzen dituan
munduko orden-esaren aurka, ordenaren alde
jartzeko bearra.*

JOSÉ LUIS L. ARANGUREN

1. GILTZAPETUAK, JESUS'en KUTUNAK

1983'ko Martxoaren 25'ean estrañatu zan Erospenaren Urte Santuan zear lurberako bost lurraldeetako giltzapetuei arreta geiagorekin begiratzeko Eliza Katolikoak daukan asmoaren aipamen labur bat agertu dute komunika-bideak. Baita ere mixio bat ots eginda lurbera osoko presondegietan giltzapean daudenentzat.

Gizaldi erdi bat Donostiako presondegian giltzape-
tuak zeuden bai emakume bai gizonezkoei emana egon
dan D. José Maria Arrieta'ri omenaldi bat egin zioten
oraindik egun asko ez direla Martutenen (Donostia)
presondegian, eta andik etxera etorri nintzanean jakin
nuen berri ori.

Elizako aipu aundikoa dan Erospenaren Urte San-
tuko Batzorde Zentraleko leendakariak dan Moseñor
Schierano'k, amabi illabete auek giltzapetuei buruz du-
ten garrantzia agirian ipintzeak, kriminolojiaren ikus-
pegitik, eta bereziki kriminolojiaren alderdi batetik, au

da, kriminolojia erlijioari dagokionez, argitapen bat merezi du.

Leendabizitik agirian agertu nai diogu gure esker-ona Moseñor Schierano'ri bere itz eta asmoagatik, urte Santu onen buruan, giza zuzentasunaren izenean, asketasuna kendu zaitenak aurrenekotako toki bat, obetogo esan, merezi duten aurrenekotako tokia bete dezaten.

Gai ontan Joan XXIII'garrenak asketasunik gabe zeudenen alde bein baño geiagotan azaldu zituan sentipenak gogoratzea ondo etorriko da, adibidez, Regina Coeli deritzaion presondegira egin zuan ikustaldian, irtetezan itz auek idatzi zituanean: "Emen uzten det nere biotza".

Buruzkoa dirudi, baita ere, emen gogoratzea Jesukristo'k, azkeneko azterketaren egitaraua egitean, Mateo'ren Ebanjelioan XXV'garren zatian, zeruko atsegiñetako sarrea giltzapetuak ikustera joan direneri agintzen diela, Bera baztertuen eta kondenatuen kideko egiten baita. (¿Noiz ikusi zintugun presondegian eta Zu ikustera joan giñen?).

Eta onen antzera, Itun Zaarrean, Yave'k, besteei ez bezelako begiramena erakusten die giltzapetuei, profeta "katigui asketasuna ots egiteko" bialtzen duela iragartzen bait du. (Isaias, 61).

Gure esker ona asketasunaren urte santu onetan prestatzen ari diran planagatik gure esker-ona agirian azaldu ondoren, kriminologo eta zigorlari askok (baitikbat kristauak), urte santu ontan kontuan artzean nai genduzken gure kezkek eta gurariak azaldu nai geniezke gure irakurleeri.

2. JAINKOAREN IXILLA ENTZUN

Oso gauza egokia iruditzen zaigu giltzapetuei... eta giltzapean ez daudenei "mixio bereizi bat" prestatzea. Mixio onek Jesus'en egitako Ebanjelioa ezagutzera eman aal izango du, bai barruan katigu daudenei eta... baita presondegitik kanpora gaudenoi ere.

Jaiaren, itzarmenaren, eskabidearen... eta asketasunaren berri ona bezela azaldu bear zaie Ebanjelioa giltzapetuei. Jesus'ek begiratzen digun bezela guztiei begiratzeko daukagun bearkizun eta alde ederra gogora

ekarri bear digu. Jesus'en begiak ez dute iñoiz ere iñoiz kondenatu, naiz eta asko bearretsi badute ere. Ez dute iñor zapuztu, gure mugaren, gure delituen eta gure pekatuen egia itzalik gabe agertu badie ere. Ez dauden personen aulkiak baño beeragokoa.

Baitegi zentro batzuetan, guziz gaindiko gogarteen, otoitz egiteko, nor bere-baitatzeko, "zen" erako eta abar, ikasketak ematen asi dira.

Une ontantxe ondo etorriko zaigu, Pakearen Nobel saridun A. Perez Esquivel'en "Escuchar el silencio de Dios" tituloa dun bere artikuloan idazten duana gogora ekartzea: "Apirillaren 4'ean (1977) detenitua izan nintzan, eta Federal Ziurtasunaren Goienekozaintzara eramán ninduten, eta an "tubo" esaten dioten. ez argi, eta norberaren garbitasunerako ezer ez daukan kalabozo txiki baten sartu niñuten. Antxe bizitu nintzan gaua ta eguna gauza bera ziran ogeitamabi egunetan. "Tubo"ra neramakiela illun artan txisaren, izerdiaren eta naigabearen kiratsa nabaitu nuan.

Oi bezelako uneetan otoitz egitean, gure otoitza bete-betean garatu dedin, ortarako egokiak diraden giro batzuk sortzen ditugu. Presondegietan bezelako egoera gorritan, guztiak beste tankera bat artzen du, otoitzaren indarraren beste neurri bat arkitzen joaten gera, gure baitan eremu bat egiteko bear ori eta orrela Jainkoaren ixilla gure baitan entzun" (1).

Aske bizi geranoi, Ebanjelioak, "mixio" orren barrera, gaur aldareetan dauden santuen euneko aundia presondegietatik igaroak direla gogora ekarri bear digu. Gizonen epaitegietako kondena askotan ez dator ondo, ez da Jainkoaren epaia bezelakoa.

3. GILTZAPETUEN ALDE ENZIKLIKA

Egoki egongo litzake Eliza Katolikoak (eta baita beste Elizak ere) "giltzapetuen alde iragarki bat" atarako baluteke, au da enziklika bat edo agiri bat giltzapetuak eta kondenatuak oñazeketaren aurka, tratu txarren aurka, zuzentasunaren administrakuntzako na-

(1) Concilium, 1983'ko apirilla, 113'garren orria.

giaren aurka, komunikabideetako ixiltasunaren aurka... obetogo babestuak egon ditezen.

Agiri onek ez ditu ipiñi bear guzizko egiak, ezta ere gurari illun batzuek, baizik eta xeetasunak zeaztu bear ditu, adibidez, Amnesty Internationalen informe batzuek eta iparameriketako presondegietako kapellauen idatziz eta kassetes zabaldu dituzten deklarazio batzuetan (gero esango degunez) egiten duten bezela.

Esparru ontan, zoritxarrez, eskari asko dira, jendeak jakin ditzan, agirian azaldu bearko lirakenak. Adibidez, gobernuko antolamenak idazten dituzte urteroko txostenak (Españian Baitegi-Eraikundeen Zuzendaritza Orokorrak egiten duan bezela) jendeari saltzea. Oso zailla da gaur-egun orrelako txostenak irakurri aal izatea. Gezurra ba'dirudi ere, geienetan izkutuan argitaratzen dira. Jendearen eskuetaraño iritxiko ez diran eran "publikatzen dituzte". Kaleko irakurleak iia beinere ez ditzakete lortu. Jendearentzat irekia dagoen biblioteka baten ere ez daude. Ezta ere —salbuespen izan ezik— unibersidade eta espezialisten biliotekatan.

Eliz maillan ere, gaur eta emen, berea egin bear luteken, eta bein eta berriz, zenbait personek garbi agertu duten eskubidea da. José Luis L. Aranguren eta Carlos Castilla del Pino'k idatziz egin duten eskariaz ari naiz, alegia, al dan guztian neurri zorrotzak artu ditezen oñazeketak kentzeko, "habeas corpus" legeztatu dedin eta abar. Eskari ori izenpetu dute baita ere, Rafael Sanchez Ferlosio'k, Fernando Savater'ek, Marc Palmes'ek, Gonzalo Martinez Fresneda'k, José María Mohedano'k eta José Ramón Rekalde'k (2).

Zoritxarrez lurralde guztiko errietan oñazetzen dira giltzapetua.k Gogora ekarri dezagun giltzapetu baten aitormena: "Urratsak eta aotsak nabaitzen nituan. Batedonbatek kandadua kendu eta atea ireki zuan, eta irekitzean argiak itsutu niñun. Ormatan idazkun asko ikusi aal izan nitun. Andik bi egunera, beste "tuboak" ere ematen zituzten lauko zuzenezko gela batean zerbait ibiltzen uzten zidaten. Toki ura oñazeketaren zentro bat zan".

(2) "Irurogeitamar egun eta irurogeitamar bider" el Pais'en 1983'ko maiatzaren 6'ean, 11'garren orrian; "Propuesta estabilizadora contra la tortura" El Pais'en 1983'ko Otsaillaren 17'an.

“Baituak izan ziren gazte batzuek toki ez-ezagunetan egonak ziran. An “legeztatzen” zituzten. Ibilli aal izan nuen egun aietan, “tuboetako” idazkunei arretaz begiratzen asi nintzen. Batzuk gogoan dauzkat: “Bizitzaren illunabarrean maitasunaz galde egingo dizue”. “Aita, barkatu; ez dakite-ta zer egiten duten”. “Birjiña, salba gaitzatzu, errugabeak gera”. Iraiñak, maite zituztenen eta bere Klub kutunaren izenak, eta orban aundi illun bat. Geroago odola zala ikusi nuan. Odolarekin iru itz zeuden idatziak: *Jaungoikoak ez du iltzen*” (N-3).

4. KRISTAUAK KANPOAN ETA BARRUAN BIOTZ-ONEKO “PRESONDEGI-ZAIK”

Eliza’ri (Jainkoren erria) lotuak dauden personak giltzapean daudenengana geiago urreratu litezke, norbera konprometi liteke, ikustera joan litezke, giltzape-tuak babesteko alkartasunak egin ditzazkete, ba, zalantzirik gabe, auek dira gizadi osoan laguntzarik gutxiena duten, zapuztuenak eta beartsuenak direnak. Orrelako zerbait egiten da zenbait Estaduetan. Eredu bezela Holanda artu liteke. Emen zenbait erlijiozko elkartasunak “probaketa” deritzaiona artzen dute bere gain bereziki, au da “probarako” eman zaizkion gaizkillei begiratzea, babestea eta laguntzea.

Españiko Estaduan ere orrelako zerbait ondo etorriko litzake, au da, Probaketa bere gain Artzen dutenen Elkartasun bat, beste errialdetan dagoen bezela. Españan ez dago, oker ez banago beintzat, ontarako benetako antolamenturik.

Probaketaren garrantzi aundia ez da epaiaren erabakia gelditzea (ezta ere kondena gelditzea), gaizkille-ari egiten zaion eskaintza baño: zera alegia, erriko eta eraikunde pribatuen laguntza izango duela bai portarako arauak bete aal ditzan eta baitan ere, berriz delituan ez erortzeko agindu zaizkion eginkizunak egiteko, orrela bir-gizartetu eta bir-nortasundun dedin (N.4).

(3) Pérez Esquivel, A.; Concilium'en, 1983'ko Apirilla, 114'garren or.

(4) 1980'ko Zigor Legediaren Eraberritzearen Egitamuko 92'garren zatia ikusi Boletín Oficial de las Cortes Ge-

Europa'ko Konseillu'ko Gutxieneko arauen arabera, presondegira lendabizikoz zigortuak izan diran gaizkilleak, delitua astuna ez bada beintzat, merezi dute kondena bañan, erabakia betetzea gelditua izan dedilla, eta probaketaren legepean jarriak izan ditezela, edo onen antzeko tratabideren bat eman diezaietela. Elkartasun oietan daudenak artzen dituzte gaizkille auk beren babespean, erlijiosoan direla edo pribatuak.

Kezkagarria da Elizaren antolamentu gutxi edo asko ofizialak direnak ainbeste ikastetxe eta unibersidade aske daudenak ezi eta eskolatzeko sortu, zuzendu, eusten diete eta... ¿Zergatik ez dira sortzen eta eusten, era berdintsuan, asketasunik gabekoentzat auen antzeko eraikundeak? Badakigu arlo onetan beti izan direla, eta ba'direla eta izango direla eraikunde batzuek; bañan geiago eta obeak nai ditugu.

5. TROYAKO ZALDIA, ZAPUZTUA

“Quinta Columnak” sartu bear dira presondegri barruan. Aske daudenen personen taldeak, Troya'ko zaldiaren antzera, barrendik esiak amildu ditzaten.

Espanian baitegietako legediak, oraindik inork lanean ipiñi ez ditun laguntz zeatz eta ekintzallei atea irekitzen die. Adibidez, 1979'ko Baitegietako Lege Organiko Orokorren Araudiak, 1981'eko Maiatzaren 8'an Errege-Erabakiaz ontzat emanak, bere 43'garren zatian esaten du elkartasun edo eraikunde pribatuak elkar-arteko lanakin giltzapetuei laguntzeko, eta bir-gizartetzen alegintzeko eraiki ditezkeela.

Guretzat interesgarriena dan atalak onela dio: “Bere delitu-bide bereziagatik edo bere nortasunaren utsegite eta gora-beragatik kanpoan lana arkitu edo egiteko, edo asketasunean bizitzeko eragozpen aundiak izaten dituzten zigortuak balinbadira, orrelakoetan baitegi zentroak erabaki dezake kanpora irtetzea litekena

nerales de los Diputados, 1980'ko Urtarrillaren 17'koan. Cfr. BERISTAIN, A.: La pena-retribución y las actuales concepciones criminológicas. Buenos Aires, Depalma argitatzallea, 1982, 135 orriak eta urrengoak. Cfr. Propuesta de anteproyecto de Nuevo Código Penal (1983), art. 101.

dela. irteera oiek eta aste buruko baimenak maillatu ere bai edo baikuntzak bearretsi. au da. giltzapetuari bere senide edo konfiantzazko personak lagundu dezaiola, edo ezitzalle edo beste arduradunen batek, edo sozial asistenteren batek, edo elkar-langintzako elkar-tasuneko edo eraikunde erriko edo pribatuko giltzape-tuak bir-gizartetzeko lanetan ari danaren batek.

Ondo egongo litzake. esketasuna kentzen duten zigor eta neurrien mendea dauden mutil eta neskatx gazteei kaso egiteko elkartasun bereziak sortzea. Baita ere. asketu berriak direnei, gizarte burrukalari oni arpegi emateko bakarrik arkitzen diranei bear dituzten lagun-tzak emateko.

Karitas'ek lezakena ez da premi bearrezkoenak ere betetzeko lain.

6. SOZIAL KONTROLEAN ELIZEK AURRETIK

Elizek bide berriak ebaki bear dituzte krimentasu-naren aurkako sozial-kontrol arloan. Ezin dezaiokete asi-masiko etikaren esparrutik ain urruti dagoen gaur-ko legetasunari beren on-iritzia eman.

Elizako eraikunde eta personak, beren egitekoari da-gokionez jardun nai badute, gaurko legekuntza eta es-taduko praxiari aurea artu bear diote. Estaduko era-ikunde ofizial eta publikoak baño beartuagoak daude errukizko egintzak irudimenakin, ausardiakin eta kon-fiantzakin betetzea. Baita asketasun gabetu eta gaizki-lletan konfiantzakin ere, naiz eta iñoiz kale egin (ez askok uste duten ainbat).

Bai nazio-arteko maillan, bai estadu eta errialde ba-koitzaren edo autonomiazko maillan baitegi-eraikun-deen legekuntza ezta nai litzaken bezelakoa ezta gutxi-gorik ere. Garbi ikusten da giltzapetuak, lege oiek egi-terakoan, ez dutela parte artu.

Bañan oraindik okerragoa dana, ez dala legekuntzak markatzen dituen be-beko mailla oietara irixten gizar-te izatearen egia. Nazio geienak, baitegietako arloan, ez dituzte beren legezko aginduak betetzen.

Giltzapetuen tratabiderako Gutxienezko Arauak, Abuztuaren 22'tik Irailla-3-raño, Jinebra'n, Delituari aurrea artzeko eta Gaizkillearen Tratabiderako ospatuzan Nazio-Arteko Biltzarrean, Nazio Batuek ontzak eman zituen Gutxienezko Arauak, osso zuzenbide argiak ematen dizkigute asketasuna kendu zaienei nolako tratua eman bear zaienari buruz. Ondoren erlijia-oren aldetik garrantzia dutenak bakarrik jasoko ditugu. Itzez itz ipiñiko ditugu, merezi dute-ta:

“41.1) Etxapeak erlijio batekoak diran naiko giltzapetu balinbadauzka, erlijio ortako baimena duan ordezkari bat izendatu edo ametituko da. Giltzapetuen kopuruak ala eskatzen badu, ordezkari orrek eten gabeko zerbitzuan egon bearko du.

2) Lenengo atalean 1) esan danez baimendun ordezkari izendatu edo ametituak, aldizka erlijio-zerbitzuak antolatzeko, eta ala bear dan bakoitzean, bakarkako pastoral-ikustaldiak bere erlijio-ko giltzapetueri egiteko baimena eman bear zaio.

3) Etzaio bein ere giltzapetu bati ukatuko erlijio bateko baimendun ordezkariakin artu-emanak izateko eskubidea. Eta, bestalde, giltzapeturen batek ez badu erlijio bateko ordezkariaren ikustadirik nai, bere jarrera erabat errespetatua izango da.

42. Leikenaren barruan, giltzapetu guztiak dute bere erlijio-ko aginduak betetzeko eskubidea, eta baimena emanaz etxapean antolatzen diran zerbitzuetan parte artzeko, eta liburu jainkotiarrek eta bere erlijioaren erakusle diran liburuak eukitze-ko”.

Gaiñera beste Arau batzuek, zearbidez, Erlijioari dagokion zerbait adierazten digute. Orrela adibidez, 6.2, 42, 59 eta 66.1 arauak. 6.2 Arauean oifarrizko sustrai bezela esaten zaigu “ajolazko gauza dela giltzapetuaren taldeko erlijiozko sinismenak eta moral aginduak begirunez artzea”.

42'garren Arauaren arabera, “leikenaren barruan giltzapetu guztiak dute beren erlijiozko aginduak bete-

tzeko eskubidea, eta baimena emanaz etxapean antolatzen diran zerbitzuetan parte artzeko, eta liburu jainkotiarrek eta bere erlijioaren erakusle diran liburuak eukitzeko”.

59'garren Arauan agertzen da nolako jokabidea erabili bear dan epaituak izan ondoren kondenatuak izan direnen tratua: Baitegiko gobernuak, sendakintzazko, ezikintzazko, bai moralezko eta espiritzuko eta bestelako laguntzarako izan ditzazken bide guztiak erabili bear ditu, gaizkille bakoitzaren tratabidearen premieri dagogionez.

Tratabideari dagokionaren barruan 66.1 Arauak, dio: “Elburu au irixteko (tratabidea) erlijiozko laguntzetara jo bearko litzake batez ere ori leiken lurraldeetan, eta irakaskuntzara, langintzan bat aukeratzeko zuzendu eta ikastera, bakoitz-sozial laguntzen eratarra, enplegueri dagokion aolkutara, gorputzaren garatzera, moral tanke-razko eziketara, giltzapetu bakoitzaren bearren arabera.

Europako Konseilluak, 1973'ko Urtarrillaren 19'an, bere 73.5 Erabakian ontzat eman zituan Gutxiengo'ko Araudietan, iia itzez-itz idatz-aldatzen ditu Nazio Batuen arauak.

7. GILTZAPETUEN EGUNA MUNDU GUZTIAN

Eliz osoko liturji-egutegia “orduan jarri liteke” urtero igande bat “asketasuna kendu zaitenenen EGUNA” ipiñiko baluke. Egun orrtan, eliz guztietan, asketasuna kendu zaitenari zer eman ote genezaiekin pentzatu bearko genduke, eta giltzapean daudenetatik zer artu bearko ote genduken, zer esan bear ote genieken edo entzun bearko ote genieken. Presondegietan sartuak daudenak badaukate, gure urietan, gure zelaietan eta gure ondartzetan gabiltzenori erakusteko ajolazko zer-bait.

Egun ortan ezagutuko genduke, burni-esi tartean, sarritan, personaren asi-masiko eskubideen urratzalle diraden egoerak sufritzen dituzteneri ainbeste laguntzen dietenen presondegieteko kapellauen meritua.

Kapellau oiek, salbuespen batzuek ezik, Jainko-erriaren txaloa eta lankidetasuna merezi dute. Geienetan kapellau oiek persona katigu eta zapuztutakoakin profeta eta asketzalle bezela bizi dira. Londres'en 1980 ean Europako Konselluaren kidegotzakin ospatu zan Bilzarrean, zerbait diradenak zentzu ortan itz egiten zuten.

Eta ontaz ari geran ezkeru, ondo datorkigu, oraindik egun asko ez direla, Apirillaren 24'ean, Martuteneko giltzapetuak Donostiako alkateari idatzi zioten karta gogoratzea: Onela zion:

Alkate jauna; joan daneko Martxoaren 31'n, Ostegun Santu egunez gure kapellau maite eta kutuna zan D. Jose Maria Arrieta eta Zubimendi il zan.

Lenago Ondarretan eta orain Martutenen probintziako presondegian berrogeitamar urtez Kapellau bezela bere Artzai iana beteaz egon da. Bere lana benetan txalogarria izan da, eta toki ontatik, zoritxarrez, pasa geradenen eskerrik beroenak merezi ditu, bere egitekoari ain emana egon dalako. Berak laguntzen zigun aolku onak emanez, eta baita diruz ere. Gizon bezela ere alderdirik onenak zitun; bera izan zan giltzapetuen larriak eta ezin-egonak ondoen ezagutu zituena. Martuteneko zentroan giltzapetuta daudenen izenean, monumenturen bat jaso edo kaleren bati bere izena eman edo biak bere oroigarri izan dedin eskatzen dizugu, ortarako zuri iruditzen zaizun tokirik egokienean. Gure guraria al dan laixterren aurrera eramango den itxaropenez aurrez gure eskerrik beroenak.

3. PRESONDEGIEN LURBIRA OSOKO KONZILIOA

Egokia izango litzake Lurbira Osoko Konzilio, eku-menikoa baño obe, baterako deia egingo balitzake —bai gizonezko bai emakumezko giltzapetuekin— presondegietako arazoak aztertertzeko. Konzilio ontan personak (gizon eta emakume) eta ainbeste Elizetako eraikundeak Baitegietako Eraikundeekin bilduko dira zuzenetik eta sakonki elkarrekiko lana egiteko. Konzilio onek gizonen aurkako zigor-sarien teori eta praxian bide berriak ireki litzazke. (Zoritxarrez, presonegiak ordañak baño geiago, personen aurkako zigorrak dira).

Konzilioak, ikaskizun-arteke zelaigune batetik, kriminaltasunari ematen zaizkion erantzunen erakutsia eta egia aztertuko ditu. Baita ere, Baitegietakako Arduradunen ondoren datozten Amar Aginduak bezelako agiriak eztabaidatu eta argitu lezazke.

a) Baitegietakako arduradunek, beren bokazioa ain ospetsu eta zailla delako, erritaren aldetik estimu aundiago merezi du. Eta baita lan-ordain oparoagoa ere.

b) Baikunde-Eraikundeak badute beren Kondaira, au da, bere aldaketa eta bere gaurkotzea. Atzo, adibidez, teoriatzko eziketari eta begirun-asketzalle praxian naikoa zana, gaur ezta naikoa.

d) Baitegi-eraikundeetakako arduraduna, iñundik ere buru argi eta biotz aundikoa, ez du naikotzat iritzi bear legezko jakintzak ezagutu eta betetzea, orain arte batzuek orrela egin badute ere, baizik eta soziolojiazko, kondaraizko, politikazko eta ekonomiazko jakintzak ere ikasi bear ditu. Ikuspegi bien arteko daramazko zeziotik beste era beteko beren pentsakera, sentipena eta jarduna jaioko da. Gizonaren etengabeko askezpenaren eta gizartezko eraikundearen obeagotzearen billa ibilliko da beti.

e) Baitegietakako ardurandungoaren egitekoa gizartearen premirik aundieneko alderdiarekin lan egitea (kondenatuak, laidotuak) eta gizonari egin lezaioken doairik aundiena eskaintzea da. Ez da etortzekoa den paraisu baten agintzaria, baizik eta berak ere kondairaren protagonista direla jabetzea. Omen eta aren arteko bereizitasun askotako bat erantzunkizunaren arrixkuan dago.

f) Baitegietakako arduraduna ez da baitikbat zerbitzari bat, ezta zuzentasunaren eta aalmendunen (indartsua) aginduen betetzalle bat, baizik eta indartsuen aurrean kondenatuaren (agian gaizkillea) babestallea baño. Beren jardunaren oiñarria ez da azken-aldi auetan gizonak sortutako legeak, baizik espirituak bearretsitzen dituan gizonaren eskubideak baño. Fiat persona, pereat mundua. Zezioa personaren eta munduaren artean balitzake (ez da orrela) lenengo personak izan bearko luke.

g) Asketasuna kentzea ez da, ezta izan bear ere, zigor bat, ezta delituaren berezko ondorio bat, oso bestelako zerbait baizik: Zigor-ordain bat bai zik, gizar-tearen eta batez ere kondenatuaren onerako joera duan kriminal-politikaren erantzun bat eta, kondenatuak tratabiderako edo tratabide ezarako eskubidea bait dauka. Presondegietan sartzen diran asko politikazko. ekonomiazko eta gizartezko zuzentasun —ezaren biktimak dira, bitartean zuzentasun-ezaren egille nagusiak kanpoan aske.

h) Askotan, presondegietako ateak irekitzen dituna ekintza baikor bat da, arazo bat erabakitzeke guxti edo asko jakiñaren gañean egiten dan alegin bat, guk ere esku garbi eta guzti, erabakitzen asi ere ez geran arazoa: gizarte auzia.

“Guk, kristauok urrengo eman bear degun urratsa da jendearen aurrean agiriagirian sozialismoa berez ez dala gaiztoa ots egitea, kapitalismoa baño; eta sozialismoa bere okerragatik bakarrik dala kondenagarria. Eta zuentzat, Roger (sozialista) iraultzak, filosofiazko materialismoakin eta ateismoakin ez duala berezko lokarririk, kondairazkoak bakarrik dituala agertzea da, aitzitik, kristautasunak errebeldia berezkoa duela” (H. Camara’k Roger Garaudy’ri).

i) Baitekietako administrakuntzaren batasuna lenbaitlen iritxi bear da, baitegietako administrakuntza bereizi danak kenduaz (batez ere eliz-legezko, militarren eta enpresarioarenak). Administrakuntzako batasun onen arrazoietakoa bat profesionaltasunaren bearra da. Beste arrazoiak, berriz, berdintasunerako giza-eskubideak, zuzentasunaren administrakuntzaren berri agirian zabaltzea eta abar dira.

j) Erriko-seme danok kriminaltasunari ekitez erantzunaz parte artu bear degu. Zeatzki, adibidez, oizko delitu asko krimeneztat ez artuaz; oizko ez diran kriminal-ekintzak erriak eta ofizialki krimeneztat artzea (polizi-oinazeketak, lurraren sal-erosketa lotsagarriak, zerga izkutatzekak, politikazko ustelkeria, kapitalen iesa, inguruaren kutsatzea, komunika-bideen esku-jokua); eta batez ere, sozial-kontralakin (familia, ikastolak, kirolak, espetakuloak, komunikabideak eta bereziki baite-

gi eraikundeak) delituari aurrea artu nai dioten eta gaizkillearen tratabiderako elkar-lana egiñaz.

k) Gure egitekoaren aurretik etsi dezagun eskubidezko sozial-demokraziatzko Estadu baten, ordain-zigorra bearrezkoa izan leikela, bañan ez beinere birtutea. Birtutea, seme galduaren aitak bezela, alaiki barkatzea da.

Egunetik egunera leikenagoa eta bearrezkoagoa gertatzen ari da guk daukagun baño beste era bateko izatea, burruka gutxigokoa, begirune aundiagokoa aske eta anaikoiagoa besteri (baita kondenatueri ere) eskaintzea.

Amar agindu auek, baitegietako arduradunen eskolatzeke zentruetako ikasketa planakin, Estadu bakoitzeke, erri bakoitzeke, autonomiazko elkarte bakoitzeke gizartezko oiturakin berdinkatu bear dira.

Españiar legedian —alde batera uzten ditugu emen autonomiazko estatutoen garrantzizkoak diran legediak— 1979'ko Baitegietako Lege Organiko Orokorra'ren 3'garren zatia gutxienez aipagarria da (Baitegietako ariketa... endagatik, politikazko iritziagatik, erlijiozko siniskizunengatik, gizartezko maillagatik, edo beste edozein auen antzeko ezergatik alderdikeririk egin gabe beteko da"); 51'garren zatiak dio ("Barruan daudenak, aurrez eskatuta, erlijioaren bateko apaiz edo ministrariekin izan ditzazketen artu-emanak, ortarako diran presondegietako zizkuan izango dira... arauen arabera eskua sartua izan leike") 54'garrenak ("Administrakuntzak zainduko du barruan daudenen erlijo-asketasuna eta asketasun ori erabiltzeko bear diran neurriak artuko ditu"), eta 1981'eko Maiatzaren 8'an Errege-Erabakiz ontzat emandako araudiko 10, 102, 180 eta 181'garre zatiak.

Araudiko 10'garren zatiak dionez, "Baitegietako Eraikundeak bere etxe-ordeko saillean bearrezkoak ditu bakarrentzako lo-gelak, gaxotegien, garbitasunen zerbitzuen, ikastolen, erlijiokizunetarako tokien zerbitzu artarakoak...").

102'garren zatiak errextasunak ematen ditu, giltzpetuak berak eskatzen badute, ministrariak ortarako egokia dan tokian ikusteko.

Azkenik, 180 eta 181'garren zatiak ia osoan idatzaldatzea merezi dute:... "Ez da barruan dagoan inor inungo erlijioeko erlijokizunetara eta oien bestelako billerata joatea beartuko, ezta ere, etzaio Elizaren edo bere erlijioeko elizkizunetara bakarrik joateko mugapiñiko".

181. 1 Giltzapetuak beren erlijioeko ministrarien ardurapean egongo dira, eta katolikoeri dagokienez, ardurari Baitegi-Eraikundeko Kapellaugoko batek izango du, edo ala ez balitz, erri artako apaizen batek, 102'garren zatian erabakitzen danaren kalterik gabe, eta Estaduak osterantzeko erlijioekin artu dezaken erabakien kalterik gabe.

2. Areto egoki bat prestatuko da Eliz, aitormen eta erlijiozko-elkarte bakoitzari dagozkion ospakizunak egiteko.

3. Presondegietako gobernurako arauak ospakizunetara joateko giltzapetuen eskubideak zaintzeko dagozkien neurriak artu bearko dituzte, baita elizen, aitormen eta erlijio-elkarteko ministrariekin artu-emanak izan ditzazten.

4. 2'garren atalean aipatzen diran ospakizunetan, erlijio aldetik personari dagokion garatzea lortzeko bearezkoak jotzen diran ariketa guztiak sartzen dira.

9. GILTZAPETUEN NAZIO-ARTEKO ALKARTASUNA

Galdetu liteke Giltzapetuen Nazio-Arteko Alkartasuna, agian bere egontokia Batikanoko Urian duela, sortzea egoki izango ote litzaken. Alkartasun onek, person eta eliz-eraikunde aldetik iadanik baitegietako arazoaz arduratzen diradenen beste nazio-arteko elkartasunakin dauzkaten artu-emanak areagotu egin bearko lituzkete: Zigor-Legediko Nazio-Arteko alkartasuna, kriminolojiaren nazio-arteko Gizartea, Giza-Defensaren Nazio-Arteko Gizartea, Zigor eta Baitegizko Nazio-Arteko Fundazioa eta Krimena eta Zigor-Ordaiñakin zer ikusia duten Gizarteekin kidakatzeko Nazio-Arteko Batzordea.

Nazio-Arteko Giltzapetuen Alkartasun onek, Nazio-Arteko gutxiengoko arauak eta Europako Konseilluko arauak betetzen ote diran, arretaz begiratu aal izango luke, eta era berean beste arau gizakoiagoak agertu aal izango lituzke. Baita ere, Estaduko agintedunak autonomiazko erri federatuen legedi eta eskubideeri begirunea izan diezaieten begiratu bearko du, eta bere kon-dairakin, bere izkuntzakin, bere baztertzea beretzeko trebetasunakin (elkar-lana egin dezaten).

Beste ainbestean ere bere egitekoa izango da azken batean, bear diran neurriak artzea presondegian giltzapetuak agindu ez dezaten... orain direla aste gutxi, bere izena gogoratu nezaken (bañan nai ez dedan) Europako erri batean gertatu dana gerta ez dedin: giza-seme giltzapetu batek 200.000 pta. ordaindu bear izan zituan beste giltzapetu batek bortxatuko ez bazuan(5).

Zeatzki esan, orrelako alkartasun baten bearra eta ekintza nabaitzen da erlijiozko asketasunaren arauketa gaurkartzeko, eta presondegietako apaizen lanean bir-pentsatzeko.

10. ERLIJIO ASKETASUNA BAITEGI- -ERAIKUNDEETAN

Zorionez, Presondegietan ere, erlijio-asketasuna egu-netik-egunera aurreratzen dijoa. Batzuetan, bai presondegietako esiz kanpotik eta esiz barrutik, gainditu bear ditugun eragozpenak ernetzen dira.

Agian, ala bearrez, bañan 1983'ko Martxoaren 25'ean, Joan Paulo bigarrenak asiera Urte Santuari ematen zion egun berean, Madrid'en, Erlijio-Asketasunaren Batzorde Aolkariaren guziena (pleno) jarri zan.

Ezartze Nagusia ospatzekoan, itz gogoangarriak esan zituzten Zuzentasunaren ministroak eta Erlijio arazoan zuzendari orokorrak. Lenengoak, Fernando Ledesma

(5) Cfr. Neuman Elias: El problema sexual en las cárceles, 2'garren argitaldia, Buenos Aires, Universidad argitaratzallean, 1982; idem, *Prisión abierta*, 2'garren argitaldia, Buenos Aires.

jaunak, Estadu españiarra erlijio gabeko eta laiko bezela legeari dagokionez eraikia dela aitortzen du, bañan ez dala orregatik ajola gabe agertzen gizarte erlijiozko egiaren aurrean... Eta geroxeago egoera berriaren arriskutasunari arretaz begiraten diola agertzen du, ba, "leikena da, dio, bere atalen oiñarrizko eskubideak urratuak izatea, gizarteko alderdi batzuek salatzen duten bezela".

Bigarrenak, Gustavo Suarez Pertierra'k bere itzaldian errepikatzen du leiken arriskutasun au erlijiozko enteekin Estaduko artu-emanen Legedi berdinkatuan punturik zeziogarriena bezela agertzen dela. Kardaba onek Alemaniko Federal Republikan estadu osoko informazio kanpainak ekarri ditu, Frantzez Republikan Lege-Biltzarraren azterketa bat, Ameriketako Estadu Batuetan alako ekinbide batzuek, Europako Konseilluan eta zenbait errialdetan, auen artean Españian, salaketa ugariak.

Itz gutxitan, gura degun erlijio asketasunak erlijio eraikundeen arazoketaren aurrez-aurre plangintza berrietan pentsa arazi bear digu... baita presondegietan ere.

11. BURNI-SARE TARTEAN ARTZAI. EZ ARDUDADUN BEZELA

Artzaiak zelaietako asketasuna maite dute, bañan oraindik geiago maite dituzte beren ardiak, eta ardi oiekin egotearren burni-sare tartean sartu litezke. Obe titulorik gabe, eta arduradunen (fuzionarioak) bearkizunik gabe.

Españian baitegietako kapellaungoaren eraikundeak, gaur egun kapellau taldean berrogei bat dauzka, eta beste orrenbeste itunduak, auek bere pastoraltzako lanaz gaiñera, barruan daudeneri eta bere familikoeri laguntzen lan egiten dute.

Sei bat urte ezkeroztik, kapellaungoaren bat iltzen denean bere tokia, oker ez banago beintzat ez da oposizioan ateratzen. Plaza batzuk utzik gelditzen dira,

beste batzuk anarteko eta noizbenerako itunez betetzen dira. Zenbait arrazoiagatik baitegietako kapellauen postua Españian eta beste Estaduren batean ere bai, agian, funtzionari bezela ezabatzeraz diho, eta askorentzat abantalla nabariakin. Ala ta guztiz ere, sakonki aztertzea merezi du. Orrelako zerbait esan nion Aita Santuari 1982'ko Azaroan etorri zanean (6).

Errialde batzuetan, Frantzian adibidez, Kapellaua bere lanari dagokionez ez dago Estaduaren mendean. Ez du beragandik diru-ordaintzarik artzen ere. Funtzionarien kanpo egoteko arrazoi sendoak dituzte, orrela bere buruaren jabeago bait dira.

Gaur egun Españiko legediaren arabera, Baitegi-eraikundeetako kapellaugoan daudenak bere gain dauzkate etxapeko erlijiozko zerbituak, espirituazko langintzak eta barruan daudenetatik nai dutenari erlijioa erakustea.

Bere eginkizun erdi-parrokizkoen barruan auek dira dagozkienak:

— Meza eta sakramentuak eman giltzapetueri.

— Kristau-Ikasbidea erakutsi, eta dogma, morala eta giza-eziketari buruz itzaldiak egin.

— Giltzapetua etxapean sartzerakoan ikustera joan, eta egunero ordu bat gutxienez bere despatxuan egin, berari beren zalantz eta arazoak agertu nai dizkietenei entzuteko.

— Etxapera joan, zuzendariak edo bere orde zangoenak deitzen dionean. (Zeatztasun geiago nai dituenak, 1981'eko Baitegi-Eraikundeen Araudiko 292, eta 293 zatia irakurri ditzazke).

Urte Santu onek abagune ederra eskaintzen digu gure kontzientziaren azterketa sakon bat egiteko, eta pastoraltzako egintz eta egitura berriak martxan jartzeko. Beste tokietan egiten denari begiratu bat bota genezaioke, adibidez, Ipar-Amerikatakoari.

(6) Cfr. Eraskiña: "¿El Papa visitará a los presos?" (Aita Santuari eta Telebistari iru eskutitz).

12. **KAPELLAUAK IPAR-AMERIKETAKO PRESONDEGIETAN**

Presondegietan lan egiten duten Detroit'ko jesuitak asko erakusten duten lau Kasette egin dituzte. Oietako bik titulo au daramakite "Itzketaldiak Jakson'go Presondegian" (Jackson Prison Interviews), familiako, ikastolako, laneko eta abar... bizikintzaz giltzapetuakin izandako elkar-izketak jasotzen ditu. Bi ordu'terdi irauten dute.

Beste Kasetta'ren tituloa da "Iltzea kondenatua egon zan batekin izketaldia (Interview of Former Death Row Inmate) eta amar urtean iltzea kondenatua egon, eta erio-zigorra barkatu ondoren, beste orrenbeste urte giltzapean egon zan Bill Witherspoon jaunaren bi-bikintza azaltzen digu. Orain bir-ezitzalle talde batean lan egiten du.

Laugarren Kasett'an Aita Joseph E. Mulligan jesuitaren "Asketasunaren Teologia eta presondegietako pastoraltzaz" (Liberation Theology and Prison Ministry) solasaldia entzuten da. Apaiz eta sekularrei zuzendua dago. Krimena eta eta presondegiari dagozkion teolojiatzko eta soziolojiatzko gaiak azaltzen ditu. Gai ontan aipamen aparta zor zaie Ipar-Ameriketako presondegietan erlijio-lanari emanak dauden ogei ta bat jesuitek (apaiz eta apaiz ez diranak). Orleans Berriko Loiolako Unibersidadean 1981'eko 27'tik 29'ra ospatu zen billeran editzera eman zituzten ondorio multzoak.

Ala diote: "Krimena nozitzen dutenengatik arduratu eta kezkatzen geralako, gu Conference of Jesuit Prison Personnel'aren atalak geranok, Kriminal Zuzentasun Legepeaz, presondegi eta zigor-etxapeaz pentsatzen jarraitzen degu. Krimenaren sorburueri eta salatuak eta ogenduntzat artuak izan diren personeri dagokionez gure jarrerei arretaz begiratzuz, ondorio auetara iritxi gera:

Presondegi eta zigor-etxapeeri dagokionez:

—naiz eta askok uste izan presondegiak gizarteari lagundu egiten diola, egiaz giltzapetuari, baitegiko arduradunei, gizarte osoari gure presondegi eta zigor-etxapeak zirrara ondagarria egiten jarraitzen dute. Preson-

degiak, miñare eta sufrimenaren geitze negargarri bat ekartzen die gizarteari eta krimena nozitzen dutenei.

— gure nazio-izakerak eta erdizkako eta gezurrezko publizidadeak sortu duan bildurak presondegi geiago sortzeko arrixkua dakarki eta orrela egiten indarkeria eta krimena geitzen da;

— presondegi berriak jaso eta zaarrak berritzea beste autabidearen aldean, zergak ordaintzen dituztenentzat geiegizko karga eta diruaren alperrik-galtze zoritxarrekoa da;

Giltzapearen ordeko autabideeri dagokionez

— guk, gizartea geranez, gure denboraren, irudimenearen, kemenaren eta diruaren puska aundi bat sartu bear degu presondegien orde bestea autabideak billatu eta sortzeko. Auek, gizarteari krimena eta kostua gutxitu bear lioke, giza-balioak pizkortzen dituzten bitartean, gauzak buruz egiñaz erabaki kondetzalleak gutxitzeko, probazio'ko gero eta obetogo prestatutako ofizialen eskolatzeko, eta gizartearen eta burukogaitzen osasunerako diruaren erabiltze sortzalle baterako. Erdiko etxeak, drogazale eta alkoholzaleenzat sendabideko elkarteak, Elizak edo beste elkarteak emandako laguntza-taldeak, enpleorako egitarauak diru laguntza bereziakin, gizartea obetogo zaitu dute.

Erio-zigorrari dagokionez

— berez gaiztoa dalako, erio-zigorraren aurka jarraitzen degu. Legez eriotza ematea ez da bakarrik giza-bizitza deusezteko era bat, baizik eta ezarri dutenak ere aberetu eta doillortu egiten ditu;

— bere moral-ezaren jiteaz gaiñera, ezartzerakoan ez-berdiña da, giza, diru, eta legezko errecurso galez-tikoa eta eginkortasunean zalantzakoa. Eriotza ematea autobide eginkorragoen aldeko ikerketarako esi bat da.

Atzerrian babestuei eta agiri gabeko personei dagokionez

— gure gizarteak politikagatik eta ekonomiagatik babes billa etorriei gure presondegietan, zigor-etxapetan

eta detenitzeko kapardietan baztertzen ditu bildurragatik, arrazakeriagatik, politikazko informazio gutxiko arrazoiagatik eta abar;

— orrelakoei bere legezko eskubideen berri eman bear litzaieke; ez lirake beintzat gure presondegietan giltzapetu bear, eta kriminalak bailira tratadu bear;

— diren gora-berak direla tratu gizakoia eman bear zaie eta bere legezko estatus errukizko eran eta auzi egoki batekin erabaki;

— bai atzerritar langilleak bai Estadu-Batuetako erriko semea babesteko erbestean jaiotakoeri lanaren sari merkeena emanaz esplotatzea debekatzen duten oraingo legeak betetzea lenbaitlen beartu bear litzake;

— persona auek bertakotzeko dauden legezko esiak ber-ikusi bearko lirake. Oien gure nazio elkartean sar-tzea erreztu egin bear luteke;

— nazio onek ekonomiazko eta gizartezko indarretan aldaketak egitearen alde egon bear luke, jendearen artean ez-berdintasun aundiak sortzen bait dituzte, eta askoren mixeri eta zapalketaren egille izan dira.

Zentzabideko arduradungoari dagokionez

— psikolojiatzko bereizkuntza eta eraketa osoa be-arretsi bear zaie, bañan bere errespetorik aundienare-kin, giltzapetuak gizakiak bezela tratatuko dituzten arduradunak prestatzeko, emoziozko, itzezko eta gorpu-tzezko geiegikeriak aizatuz;

— baitegietako arduradunak lan-sari egoki bat eta bestelako emaitzak izan bear lituzteke lan ortarako ortaratuenak erakarri aal izateko, eta lana bera bertan jarrai-arazteko erakoa izan dedilla;

— zailtzeko saio-aldiak eten gabe bear lirake beren trebetasuna eta jarduna bikaintzen joan dedin eta be-re gizakoitasuna giltzapean dauden personeren tratabi-dean geitzen joan dedin. Izaten diran tensio eta norbe-raren krisi-aldieri arpegi emateko zaildu bear lituzke arduradunak egitarauak.

Presondegietako eta zigor-etxapeko kapellauei dagokionez

— Kapellauei adorea eman bear zaie beren ministe-ritza arduradunen eta giltzapetuen artean betetzeko;

presondegiko jendearen espirituazko bizitzakin aritzea premiazkoa da edozein giza-aldaketa baikor bat egiteko;

— zigor-etxape guztiak eta presondegiak kapellau bat euki bear luteke, eta onek aolkuak emango dizkion batzordea bear luke, bañan kriminal-zuzentasunekoak ez diran personekin osatua; batzorde ori jokabide bat garatzen laguntzeko eta egitarauak eta aurrerapenak zaintzeko izango litzake.

Araubidezko aldaketa baten alde egiteari dagokionez

— borondate oneko jendearekin elkartasun iraunkor-rak tajutu bear dira. Eta elkartasun auek eziketazko eta bestelako eraikundeeri atxikiak egon bear luteke eta aldaketa egitekoan dato zintzoak erabilli. Lan ortarako bakarrik emanak egongo diran personak bearko dituzte beste borondatezko askorekin;

— politikazko indarrak eta daude eraikundeak arretaz aztertu eta erabilli bear dira aldaketa egiterakoan. Publikoa or sartzen diran egitako arazoetan ezia izan bear luke. Era baikor batean berarizko gaiean sartzeko estratejiak aukeratu bearko lirake” .

13. BIR-MORALIZATZEA ETA PRAXI ZEATZA

— Delituari eman bear zaizkio erantzunen gizakoi-tzean egin ziran amesak galtzen joan dira. Bañan, Aranguren'ek dion bezela (era batera itz egiñaz), amesa galtzea baño askoz okerragoa da denok murgilduak gauden guztion morala galtzea. Denok ari gera arriren bat ipintzen presondegiko esia bear baño geiago sendotzeko.

— Bir-moralizatzeke bear larria dago, presondegieta-ko zikin-zuloak erlijiozko urez garbitzeko bear larria dago.

Zenbait arrazoiagatik, presondegiko asko itxi eta lurre-ra botatzeko eta mundu osoan giltzapetutako millaka asko, baitikbat kontzientziagatik giltzapetu guztiak, asketasunera irten ditezen, Urte Santu ontan eginkor eta zeatz dena al dan guztian egin bear degu. Amnesty International'en itz-saillaren arabera indarkerira jo edo

bere alde egin ez badute, politikazko edo erlijiozko beren iritziagatik edo kontzientziako beste arrazoen batengatik, edo bere jatorri, sexu, kolore edo izkuntzagatik giltzapean geldituak dauden personnei kontzientziko giltzapetuak deitzen zaie.

Gaitz-erdi bezela, presondegia ireki asko eraikitzea konbeniko da. Kondenatuak beren gelan gaua pasatzea bearrezkoa izango dute, bañan egunez lanera irten ahal batzuek, erabakitako orduen arabera, baita atsedena leku batzuetara ere.

Gaur gaur bezela (biar, ez), presondegia batzuek bearrezkoak dira, bañan ez ainbeste. Askoz gutxiago, eta batez ere, ez ain naskagarriak. Personak persona bezela artuko dituanak.

Presondegietako kriminal-politikan danok itza emana daukagu, krimenaren aurkako giza-duintasunaren erraldoi burruka bat asia bait dago. Alde batetik edo bestetik, burruka ontan, danok parte artu bearko degu.

Laixter izkutatu bearko dute presondegia-kaiolak. Personak, usoak bezela egan egin mai degu.

ERASKIÑA
¿AITA SANTUA GILTZAPEAN DAUDENAK IKUSTEA
JOANGO OTE?

*“Gorrota pekatua
baiñan maite pekataria”*

(Agustin deuna)

Orain direla illabete batzuk Aita Santua Españira zetorrela iragarri zenean, kristau batzuek, legelari batzuek, zenbait arduradun eta presondegietakoko kapellau batzuek baitegi-eraikunde batzuek barrendik ikusi eta an elkar-izketa bat asketasunik gabe zeudenakin izatea egoki izango ote litzaken eztabaidatzeko bildu ziran. Billera batzuek egin ziran. Presondegiak egiaz nolakoak ziran eta an barruan zeuden kristauak, onerako edo txarrerako, zenbat-añeko eragiña zutenen informazioa bildu gendun... Tele’k eta sozial komunikabideak kafatiar gaztelu orren atea irekiagoak ikusteko zeukaten gogoia agertu zuten.

Andikan, beste agirien artean, izenperik ez baiñan artutzedun asko dituen iru eskutitz sortu ziran. Guztiak ondorio antzekoetara irixten dira. Aita Santuaren bidaiaren txeetasunak prestatzen ari direnak, Aita Santuak giltzapetuak ikusi aal izateko bideak erresten badituzte, illunpean argi bat piztuko da. Artzai Onak bere artaldea eta ardi galduak (edo biktimatuak) poztuko ditu. Gizarte osoak —ez bakarrik Españikoak— ez ditu eskuak ain zikin eukiko. Asko eskatzea izango da, baiñan alegiñak merezi du.

Giltzapetu asko dira Aita Santua "Barruan" ikusi nai dutenak

Samariar on maitea: Poztuko giñake zuk Españiko presondegi batzuetan sartzeko daukazun guraria iri-
txiko bazenduke. Gutxi izango dira guk baño esker o-
beagokin artuko zaituenak.

Egi-egitan esaten dizugu, beste iñori baño arreta aun-
diagoarekin entzuten dizugu. Zure itxaropen mezua ger-
tutik entzutea besteak baño bearrezkoagoa degu. Eman
dator ondo Dante'k inpernuko atean idatzi zuan ura;
"Emen sartzen zeratenok, galdu erabat itxaropena".

Zatoz, Jauna, auxen da zure etxea. Jesus ere onen
antzeko presondegi baten egon zan. Gero kondenatu-
tako santu batzuek (Loiolako Iñazio eta Gurutzeko Jo-
an bezela), eta Aita Santuak ere bai. Batzuek ikustaldi
bat egiteko bakarrik, eta biotz-ikaraz irten ziran. Jo-
an XXIII'garrenak, Regina Coeli Erromako presodegi-
tik irtetzean onela idatzi zuan: "Nere biotza zuekin gel-
ditzen da emen".

Herejitzat artua izan liteken zerbait esatera ausar-
tzera goaz: Kristo elizetako sagraioko osti santuan
ainbat dagoala gure artean.

Beinere giltzapetuak, kondenatuak egon ez direnak,
nekez ulertzen dute Jesus'ek Azken Epaiian esango di-
tuan itz aiek: "Zetozte, nere Aitaren bedeinkatuok, gil-
tzapean negoan eta ikustera etorri zifiatelako". Tira, eto-
rri, zerurako pasaporteak ematen ditugu, naiz zuk o-
rren bearrik izan ez. Guk, gau eta barruan Aita San-
tuaren bearra daukagu. Obe zerorrekin telebista eka-
rriko bazendute epailariak eta erriko-sume guztiak zuk
nolako trataoa ematen diguzun ikusi dezaten. Zure anai
ondatzalleori bizitan lurra ematen diguten esien gaiñe-
tik gora begiak jasotzen erakutsi eiguzu.

Zenbait presondegietakoa kapellauek persondegia obeagotzeko laguntza eskatzen digute

Aita Santu maitea: Gure kideko ipar-ameriketar
zenbaitek, Orleans Berriko Loiola Unibersidadean igaz-
ko 1981'eko Abenduaren 27'tik 29'ra bilduak, "Aldake-
tarako Deia" tituloakin adierazpen batzuek agertu zi-
tuzten. Beren bizikintz eta eskariak Ipar-Ameriketako
presondegieri dagozkie zuzenki. Bañan zati aundi ba-

tean, beste lurraldeetako eta zeatzki gure errikoei atxiki lezaizkioke eta bear litzazke. Beste baiezen artean, Zure Santutasunak zearka eta aldaketa batzurekin bada ere, berak esaten dutena sendotzea ondo etorriko litzake.

Onela diote; "Naiz eta askok uste izan presondegiak gizarteari lagundu egiten diola, egiaz giltzapetueri, baitegiko arduradunei, gizarte osoari gure presondegi eta zigor-etxapeak zirrara ondagarria egiten jarraitzen dute. Presondegiak, miñaren eta suprimenaren geitze negargarri bat ekartzen die gizarteari eta krimena nozitzen dutenei. Gure nazio-izakerak eta erdiztako eta gezurrezko publikidadeak sortu duan bildurak presondegi geiago sortzeko arrixkua dakarki eta orrela egitez indarkeria eta krimena geitzen da, beste autabideak ere egon litezkela aaztuaz".

Era berean, gure iritzia da, gure sozial kontrolak delitu txikien egileen aurka eta ekonomiako, politikako eta akademiako... jauntxoentzat gogoikarri diren personen aurkako presondegizko erantzun "errezak" ebanjeliozko izadiaren ikuspegitik argi-urteetara daude.

Atsegin zaigu eta maite degu gure baitegi-eraikundeetako kapellau bokazioa. Eder izango litzaiguke gu pizkortzea eta, ala badarizkio, bir-egituratzeko gure presondegietara Zure Santutasuna urreratuko balitzake. Errialde naikoetan, Frantzian, Estatu Batuetan, Alemaniko Federal Errepublikan, gure kidekoak, estatu maillan, beren eraikundeen barruan alkartuta lan egiten dute, eta badituzte beren aldizkariak, biltzarrak eta abar, eta aukerari entzuten eta giltzapetuentzat laguntza bat dira. Eta egokia dan garaia datorrenean, publikoa bada pribatua bada arlo ontako eta artako geigikeriak salatzen dituzte. Asketasuna kendua daukatenari zenbat eratan lagundu lezaiekin agertzen die kristauei. Europa'ko Konseilluak Londres'en 1980'ean nazio-arteko mintegi bat antolatzea iritsi du (adibidez, zerbait zeatza aipatzeko). Mintegi onen gaia izango da "Baitegi-Eraikundeetako pentsakizun eta praxian kapellauen egitekoa eta ekarria".

Mintegi ortako txostenetan kapellaua sinestun eta Kristoren jarraitzaile bezela agertzen da, Elizaren egiteko asketzallearekin baimendua, eta profeten antzera itz egiteko sozial-politikazko agintedunak ezagutua, sistemaren baztertuen aurkako zuzentasun-erak gutxitzen

lan egiten duna, eta giltzapetuetan Jesus ikusiz alik eta urreena aiekin bizitzen dena.

Leeds Unibersidadeko Teolojiaren irakasle, David Jenkins'ek bezela guk ere iritzi berdiñakin gure ministeritzakin gizarteari, oro ar, on asko ekarri diezakeiogula uste degu, aspalditik dauden okerrak arkitu eta zuzendu litzazke presondegietakoko gure jardunak, alako Eliz-Estadu artu-emanak, edo beste alako kristau izenakin gezurrezko kultura, eta ain nabarmen gure erakundeetan agiri den zentzugabeko jainko-gabetzearen urre dagoen jerarkiaren ajolagabekeria bezela.

Telebistak gu ikustera etortzean Zurekin etorri bear luke.

Zenbait legelariak nazio batuetako gutxiengoko arauak gogoratzen dituzte eta baitegizko enziklika bat eskatzen dute

Aita Santua: Ongi etorria Españira. Badakigu zure pastoral-asmoen ederra. Katolikotasunaren buru bezela, gure fedea, gure itxaropena, zuzentasuna indartzeko geitu nai dituzu. Oro ar, giza-eskubideak errespetatzearen eta garatzearen bearra denok aitortzen degu. Baño oso zail egiten da odei tartetik arazo zeatzetara jeiztea.

Arazo gutxi izango dira ain aundi eta egurasteko eta urretik ezagutuak izateko 20.000 eta geiago giltzapetu oiek baño bear aundiagoa daukatenak. Or daude kaiolak diruditen gelatan zimelduta, edo abereak bezela ikulluen antzekoetan sartuta personak baño gutxiago balira bezela, bere famili eta adixkideengandik urruti, gutxieneko bear litzaieken erespeterik eta itxaropenik gabe. Aintziñan lepradunak bide ertzetan etzanda egoten ziran bezela.

Kristau gaxotegiak bukatu zuten erabat oitura lotsagarri aiekin. Talion legearen "begiari begi, ortzari ortz" ura Ebanjelioaren orantzak gainditu zuan. Eta gaur ere epai-aalmenaren zuzentasun gabeko jarduna zentzutzen jarraitzen du. Bañan gaur oraindik garbitu bearreko ustelkeri asko gelditzen da. Dioten bezela, Jesus'ek lokarriz egindako zigorra jauretxean saltzen eta erosten zebiltzenak botatzeko artu ba zuan, jzenbat orrelako lokarrizko zigor bearko lirake presondegiak gizakoitzeko, arria-arri gañean utzi gabe botatzeko! Zen-

bait Españiko alkartasunak eta gure autonomiazko el-
karte batzuek gure presondegiak etxeak baño geiago
illerriak diruditela salatu dute eta salatzen jarraitzen
dute. Urteoro millaka eta millaka person igarotzen di-
ra leize oietatik, eta bakar-bakarrik, txakur txiki bat
ere ez dutela, bañan ori bai bekokia laidotua arkitzen
dituztenek arrikaeman dezaioten, irtetzen dira, nola ta
Jesus'ek "Dives in misericordia", emakume eskontz-
naastallearen pasartean bezela galerazten ez badu be-
intzat.

Asketasuna kendu zaieten tratabiderako Nazio Ba-
tuetako gutxiengo arauak, eta auen antzeko Europako
Konseilluen arauak ipiñita daukate, giltzapean daude-
nak beren erlijioko ministroren bat eskatzen dutenean
aren ikustaldia erreztu egin bear zaiela. Ba dirudi, zen-
tzu batean, egokiagoa izango litzakela Aita Santuaren
ikustaldirako orixe bera egitea.

Aitortzen degu gure aberrian zure amar eguneko
ibilbidea arautu eta antolatu dutenak, ziur asko, pre-
sondegi bat edo geiagorako ikustaldi ori pentsatu eta
ain izango zutela. Bañan eragozpen bat baño geiago
arkituko zituzten noski. Ea ba lerro auek adorea ema-
teko eta eragozpenak gainditzeko izaten diran beintzat.

Gutxienez, Zure Santutasunaren ainbeste eta ain
zuzentasunik gabe sufritzen dutenei eskua estutu, en-
tzun eta itz egiteko guraria barreiatu dedin.

Guragarria izango litzake abagune ontan (eta gero)
mass erdikoak eta telebistak, industriazko eta industri-
ondorengoako gizartearen naskagarritegienganako baz-
tertzearen, aaztutzearen eta gorrotoaren berri geiago
eta nolakotasun geiagorekin ematea. Emen ez sartze-
agatik "erriaren opioa" ere ez da sartzen.

Zure Santutasuna Españiko presondegi baten sartzen
bada..., berriz ere etorriko da. Geiagotan etorriko da.
Elizaren buru bezela zure baitan galdetuko dezu; ¿nor
giltzapetuak baño beartsuago?

Asketasuna kendu zaietenak, —eta baita legelariak
ere— ikustaldi bat eta Zure Santutasunaren baitegi-
eraikundeeri dagokion Enziklika bat nai genduke.

Alako ausardiz esan eta ain sakon ERRUKIA itza,
maitasunaren eta antolamenaren sustraizko tankera be-
zela adierazten dezu... (7).

(7) Eraskin onen leen-idazkia ofizial bidetik Aita San-
tuari iritxi zetzaion 1982'ko Azaroaren 2'an bialdu zitzaion.